



FEMINISTA DENBORA LERRO FEMINISTA DENBORA LERRO

UNITATE

DIDAKTIKOA

LERRRO FEMINISTA DENBORA LERRRO FEMINISTA DENBORA

EGILEAK



BABESLEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA

BIDAIAREN HASIERA

1. HISTORIAURREA

HISTORIAURREKO MITOAK DESMITIFIKATZEN
ARKEOLOGIA FEMINISTA

2. ANTZINAROA

EZ KONTATU IPUINIK!
EMAKUME PENTSALARIAK
ETA ERROMAN ZER?

3. ERDI AROA

EMAKUME ONAK VS EMAKUME TXARRAK
NOBLEZIA ETA KORTESIAZKO MAITASUNA
ERDI AROKO ARGILUNAK ERDI AROKO ARGILUNAK

4. ARO MODERNOA

ESPLORAZIOAK ETA KONKISTAK
ERRENZIMENDUA XV-XVI. MENDEAK
PATRIARKATUAREN SUSTRAITZEA, KAPITALIMOAREN SORRERA
ILUSTRAZIOA XVII-XVIII. MENDEAK

5. ARO GARAIKIDEA



ZER DA DENBORA LERRO FEMINISTA?

Hainbat gertaera historiko **kronologikoki kokatzeko joko**a da. Feminismoaren ikuspegitik, **betaurreko moreak jantzita**, iraganera bidaiatuko duzu-eta, bide batez, gaur egunari buruz hausnartuko duzu. Izan ere, pentsatu une batez zure bizitzako edozein egunetan zenbat emakumerekin egiten duzun topo: ogia erosten duzun dendan, etxean, eskolan, garraio publikoan, telefonoz hitz egiterakoan, telebista ikusterakoan... Emakume horiek guztiak zure egunerokotasunetik ezabatuko bazenitu, erokeria izango litzateke, ezta?

ZER GERTATU DA EMAKUMEEN IRAGANA ETA KONTAKIZUN HISTORIKOekin ?

Bada emakumeak narrazio historiekoetatik ezabatu dituzte. Historio osatugabea kontatu digute. **Emakumeak arlo guztietako bizitza, sozial, politiko, ekonomiko, kulturalen... parte hartu badute ere, Historioak gutxietsi egin ditu.** Aldi berean, ontzat hartu da kontakizun historikoetan emakumeak teknologiaren kontrol eskasa dutela, pentsamendu abstraktu eta sormenerako gaitasun mugatuak dituztela edota rol pasibo eta besteekiko (gizonekiko) menpekoak direla. Bestela, nola azaldu liteke gizon margolari gehiago ezagutzea emakumeak baino? Edo zergatik ez da emakumerik agertzen filosofiako liburuetan? Edo emakume zientifikoak zerrendatzea eskatzen dutenean, zergatik bat besterik ez da aipatzen (Marie Curie 😊) ?



'SPOILER' TXIKI BAT: GIZONA NORMA BIHURTU ZUTEN, GAUZA GUZTIETARAKO NEURRIA. EMAKUMEA, ALDIZ, GAINONTZEKO ZERBAIT

Arrakasta ereduak, ia beti, maskulinoak izan dira eta horrek mugatu ditu emakumeen genealogia eta emakumeak erreferente izateko aukerak. Denbora Lerro Feminista jokoaren eta unitate didaktiko honen bitartez, emakumeen ekarpenak azalarazi eta hainbat hutsune betetzeko ahaleginak egin ditugu.

(*) "Emakume" eta "gizon" hitzak erabiltzen direnean sozialki eraikitako kategoriei egiten zaie erreferentzia, klase sozio-politiko eta ekonomikoak operazionalizatzeko erabiltzen direnak (Goikoetxea et al., 2020).


BIDAIAREN HASIERA!

Denboraren makina martxan jarriko dugu eta etapa historikoak zeharkatuko ditugu Historiaurretik, Aro Garaikidearte!



Hasi aurretik, badaude **denboraren edozein bidaiarik** ezagutu behar dituen hainbat kontu:

Bidaia honetan zehar horrelako sinboloak aurkituko dituzu, **ERRONKAK dira, esperientzia aberastuko duten hausnarketarako dinamikak**, alegia. Saiatu hauek erantzuten, batzuk zure inguruko pertsonekin ere probatu ditzakezu!




Denbora Lerro Feministaren jokoaren sortzeko osatu ditugun **KARTAK aurkituko dituzu**, baita hauen inguruko informazio gehigarria ere. **Zenbat eta gehiago jakin orduan eta aukera gehiago izango dituzu irabazteko!**

Azkenik, **BAZENEKIEN? atala** aurkituko duzu, **bertan datuak, bitxikeriak eta bestelakoak jaso ditugu**. Zure interesekoak izatea espero dugu!



Dagoeneko gutxi falta da bidaiari hasiera emateko. Norabidea ez galtzeko, garrantzitsua da unitatean zehar aurkituko dituzun hainbat kontzeptu menperatzea. Tira ba, hemen duzu lehen **ERRONKA!**



Zer da androzentrismoa, eta zisheteropatriarkatua? Izan ditzakezun zalantza hauei guztiei erantzuteko erronka hau prestatu dugu. Saiatu eta lotu kontzeptu hauek beren definizioekin. Behekaldean erronkaren emaitzak aurkituko dituzu!

1 Feminismoa.

2 Androzentrismoa.

3 Zishetero-patriarkatua

4 Sexu-genero sistema

5 Jendarte bitarra

6 Iruditegi kolektiboa

7 Kosifikazioa

8 Rol banaketa tradizionala

9 Maitasun erromantikoa

10 Matxismoa

A "Sexua" gizonak eta emakumeak definitzen dituzten ezaugarri biologiko eta fisiologikoak lirateke; "generoa", berriz, sexu sailkapen horri jendarteak esleitu dizkion rolak.

B Une oro "adimen" sozial kolektibo gisa funtzionatzen duten mito eta sinboloen multzoa.

C Jendarteak pertsonen portaerari buruz ematen dituen arau, agindu zein irudikapen kulturalen multzoa: Gizonezkoek indarra dute, emakumezkoak, ahulak dira; Gizonek ikasteko eta lana egiteko gaitasuna dute, emakumeak zaintzeko jaio dira.

D Sistema soziopolitiko bat da: Gizonak eta zisheterosexualitateak nagusitasuna dute beste genero eta sexu-orientazioen gainean. Gizon zisheterosexualen ezaugarri maskulinoak saritzen ditu.

E Gizona emakumea baino gehiago dela uste duen jarrera edo sinesmena. Gizonaren gorespena eta prebalentzia sustatzera bideratutako jarrera, jokabide, sinesmen eta praktika sozialen multzoa ere bada.

F Mugimendu politiko eta soziala da. Genero-berdintasunaren alde eta emakumeak pertsona fisiko zein eskubidedun gisa aitortzearen alde borrokatzen du.


G Bizitza osorako sentimendua ('beti maite izango zaitut'), esklusiboa ('zuk besterik ez dut maite'), eta baldintzarik gabekoa ('maite izango zaitut gauza guztien gainetik').

H Pertsona bat objektu sexual gisa ikusi gainerako nortasunetik eta existentziatik gabe. Bere ezaugarri fisikoak beste pertsona batekiko plazer-tresnetara mugatzen ditu.

I Generoa maskulinoan edo femeninoan sailkatzean datza. Eredu honetan, "sexua", "generoa" eta "sexualitatea" lerrokatutzat hartzen dira.

J Gizonari, eta bere ikuspuntuari, munduan, jendarteetan, kulturen eta historian posizio nagusi bat emateko praktikari egiten dio erreferentzia. Horrela, gizonak dira erreferentzia, eta emakumeak, aldez, ikusezinak.

PREST AL ZAUDE? AURRERA EGIN
DEZAGUN BIDAIAREKIN!





HISTORIAURREA



Hona hemen gure lehen geltokia! **Historiaurrea izan da jendarteak bizi izan duen aldi historikorik garrantzitsuena, idazketa-sistema asmatu baino lehenagokoa alegia.** Historiaurrea funtsezkoa da, ez soilik etaparik luzeena delako, baizik eta, garai horretan definitzen direlako gure ezaugarri gehienak, jendarte gisa identifikatzeko erabili ditugunak. **Etaparik ezezagunena ere bada,** batez ere idatzizko lekukotasun historikorik ez dagoelako.

Jarraian ikusiko duzu etapa historiko honen azterketek (XIX eta XX. mendeetan osatutakoek, gehienbat) leku "ikusezinetan" kokatu dituztela emakumeak. Nola definitu dituzten eta nola onartu diren leku horiek. Azken batean, **historikoki desberdintasunak justifikatu dituzten ideien oinarriak.**

Garai horietako egungo ilustrazioak ikusteko aukerarik izan duzu noizbait? Ziur baietz! Zer egiten ari dira emakume horiek? Eta gizonak? Non daude? Nola daude jantziak? Interneten bilaketa azkar bat egitearekin nahikoa izango da!



Hauek dira aurkitu ditugun irudietako batzuk. Zer irudikatzen dute? zenbat emakume eta zenbat gizon agertzen dira? Hartu zure denbora eta idatzi itzazu zure hausnarketak!



Suposatzen dugu ez dagoela askoz gehiago esan beharrik! Batzuen eta besteen irudikapenen arteko aldea nahiko argia da. Hauek dira ideia errepikatuenak:



GIZONA:

IZENA: Josemari

ABIZENA: Haitzulogoikoa

- Ehiztaria-hornitzailea.
- Indartsua, ausarta.
- Hasierako jendarteartentzat oinarrizkoak ziren tresnen sortzailea.



EMAKUMEA:

IZENA: Marijose

ABIZENA: Harriandi

- Biltzailea-Ugalketa.
- Ahula, sentikorra.
- Eta batzuetan... emakumeak ere aurkitu ditzakegu... ezer ere ez egiten? Izakiaren historiaren figurante huts irudikatuak akaso?



Antzekotasunik ikusi al duzu hauen eta gaur egun gurean dauden genero estereotipo eta rolen arteko banaketa tradizionalarekin? BAI, ezta? oso nabariak gainera!

Gezurra dirudien arren, historiaurreko bizimoduen inguruko kontaketeak emakumeak eta gizonak egin dezakegunaren -eta ezin dugunaren- inguruko irudi oso argia osatzen dute, eta honekin batera, NATURALA denaren -eta ez denaren- inguruko diskurtso arriskutsuak sortu ere!

BAZENEKIEN?

Museo askotan aurkitu daitezkeen historiaurreko bizimoduen inguruko errepresentazio asko, estereotipatuak izateaz gain, emakumeak baztertu izan dituzte.

Marga Sanchez Romerok "Emakumeen aurrehistoriak: Ezagutu guri buruz kontatu dizutena" liburuan aipatzen duenaren arabera:

- Estatu mailan, Almeriako museoan aurkitu daiteke garai honetako emakumeen errepresentazio mailarik altuena. Garaiko irudi edo ilustrazio guztietan agertzen diren pertsonen artean %33 emakumeak dira. Arkeologia Museo Nazionale % 25 (2014) eta Asturiaseko Museo Nazionale %12 (2011).

BAINA ZERGATIK OTE DA?



HISTORIAURREKO MITOAK DESMITIFIKATZEN

Bidaiaren puntu honetan, baliteke honelako zerbait pentsatu izana: "Tira... agian iraganeko emakumeek ez zuten ekarpen handirik egin? agian ez zuten ezta gaitasunik... edo agian ez zuten kontatzea merezi duen ekarpenik osatu. Horregatik agertzen dira gutxiago irudietan, horregatik erabiltzen dira "Gizonaren historia" edo "Gizonaren garapena" bezalakoak jendartearen osotasunari erreferentzia egiteko. **AGIAN, agian, agian...**

Baliteke ere, zure buruari galdetu izana, "Baina zergatik ari naiz ni honetan guztian pentsatzen? Ez al naiz ni Josemari Haitzulogoikoa baino neandertalagoa izaten ariko, ezta?"

KAIXOOO!



Hona hemen bi gertakari historiko. Kasu honetan ikerlari lanak egitea tokatuko zaizu. Frogatu erronka hau zure inguruko pertsonekin, zer erantzun dizute? Apuntatu ezazu, aurrerago informazio hau behar izango duzu eta.



Irakurri testu hau beste pertsonari:

Modena (Italia), 2009. urtea. IV. eta VI. mendeen arteko hilerri bat aurkitu da. Bertan elkarri eskutik helduta dauden bi pertsonen hilobi bat, "Modenako Maitaleak" izena jarri diete.

Galdetu beste pertsonari:

- Zeintzuk dira Modenako Maitale hauek?
- Zer gertatu zaie?
- Zergatik daude eskutik helduta?

Zeinek egin du labar-margo hau? Zure inguruko pertsona bati margo hau egin zuen pertsona marraz dezala eskatu iezaiozu, ahalik eta deskribapen zehatzena egin dezala.



Zer erantzun dizute? Zer informazio bildu duzu aurreko erronkan? Interesgarria ezta??? Ziurrenik, "Modenako Maitaleak" zeintzuk diren eta margoak nork egin zituen ezagutu nahiko duzu. Goazen!


2009. urtean, eskua elkarri helduta zuten bi pertsonen hilobia aurkitu zuten. Baina zeintzuk ziren pertsona horiek?

Aurkikuntza hori nahikoa izan zen maitasun istorio bat asmatzeko, non, bi maitale, emakumea eta gizona, jakina, beren maitasun itogarriaren seinale, batera lurperatuak izan ziren, elkarren arteko maitasuna betiketzen. Horrela, hiriko museoan 'Modenako Maitale' ikusarazi eta ezagutu ziren.



Egia esan, hezurren kontserbazioaren egoerak ez zuen pertsona hauen sexua ezagutzea baimentzen. Aurkikuntza egin zuten zientzialariek argi utzi zuten hasieratik, ezinezkoa zela hezurak gizon eta emakume batenak zirela baieztatzea. 10 urte geroago, (eta teknologiaren garapenari esker) **analisiek agerian utzi zuten 20 urte inguruko bi gizonen hezurak zirela.**

Eta zer gertatu zen orduan? Bada... jendea EROTU egin zela!



Egia esan, ez dakigu nortzuk ziren, ezta elkarrekin lurperatzearen arrazoiak zeintzuk izan ziren ere ez, ez behintzat oraingoz. Hala ere, Marijose Harriandik badu zeresana honen guztiaren inguruan.

Dakiguna da gizon bat eta emakume bat zirela ziurtzat jo zenean inork ez zuela zalantzan jartzen maitaleak izan zitezkeenik. Zergatik ote **orain** hainbesteko eztabaida?



ESKERRIK ASKO, Marijose!

Nortzuk egiten zituzten Historiaurreko labar-margoak? Galdera ona. Zein irudikatu du zure lagunak? Are gehiago, zein irudikatzen duzu zuk margo horiek egiten? Une honetan, ondo letorkizuke lehenengo erronkan landutako Zishetero-patriarkatua eta androzentrismoaren kontzeptuak gogora ekartzea, funtsezkoak izango baitira datorrena ulertzeko.

Arturo Asensiok "Artistarik gabeko Artea" erakusketarako osatu zuen ilustrazioa duzu honako hau. Bertan emakume bat ageri da Altamira margotzen. Irudi honek kritika asko eragin zituen, jende askorentzat ez baitzen oso errepresentazio zientifikoa.



Artistarik gabeko Artea erakusketaren irudia: Arturo Asensio (2012)

Sanchez Romero arkeologoak nabarmendu du, irudi hori erabili izan duen hitzaldietan horrelako galderak egin dizkiotela:

Zelan dakizu emakumeak zirela margotu egiten zutenak?


Marga Sanchez Romero* arkeologoak erantzuten dio:
Nola ziurta dezakezu zuk, ordea, gizonak zirela margotzen zutenak?

Uste al duzu horrelako galderak egingo zizkiotela irudia hau erakutsiko balu?



Gizonei egotzi zaizkien hainbat eta hainbat eginkizun edo aurkikuntza ontzat eman izan dira, inolako froga zientifikorik gabe. Emakumeen kasuan, ordea, hau ez da horrela izan, eta askotan, froga zientifiko garatuenetako emaitzak ere zalantzan jarri dira.

Picasso, Velázquez, Vincent van Gogh, Sandro Botticelli, Francisco de Goya... Zure ingurura begiratu besterik ez duzu egin behar, iruditegi kolektiboaren oinarri diren ideiak ulertzeko. Dozenaka emakume artista, Artearen Historiaren historiografiatik kanpo utzi dituzte. Horrela, aintzat har daitekeen edozein artelanaren atzean gizon bat dagoela pentsatuko da. Ideia hori Historiaurreko labar-margoen azterketak ere lausotu ditu (baina ez bakarrik).




Esan bezala, Labar-arteak gizonei bakarrik egotzi zaie, hala ere, ez da beharrezkoa izan hori horrela zela argitzen zuen inolako froga zientifikorik. Aldiz, gaur egun, emakumeek margotzen zutela frogatzeko baliogarriak izan daitezkeen analisisen emaitzak baditugu. **Kantauri isurialdean eta Frantzian, aurkitu diren haitzuloetako margoen artean ageri diren esku aztarnen % 75a emakumeenak direla ondorioztatu da. Interesgarria, ezta?**

Gehiago jakiteko: <https://www.nationalgeographic.es/ciencia/los-artistas-prehistoricos-podrian-haber-sido-mujeres>

*Sanchez Romero irakurri duzun lehenengo aldian, gizona zela irudikatu al duzu?

Sorgin-gurpil baten aurrean gaudela konturatuko zinen dagoeneko. Egungo jendarteetako genero rolek, historiaurreko bizimoduen azterketak baldintzatu dituzte. Aldi berean, historiaurrean ematen ziren ustezko generoen araberrako rol banaketek, egungoak justifikatzeko erabiltzen ditugu.



Zorionez, genero ikuspegiadun arkeologiak urte asko daramatza historiaurreko emakumeen inguruko ezagutza sortzen eta joera androzentrikoak mahaigaineratzen. Datozen lefroetan egin diren aurkikuntza horietako batzuk ezagutuko ditugu, baina hori baino lehen... ireki ondo zure begiak, aldarrikapen feministarako unea iritsi baita!

Helburua ez da emakumeak garai hartako pertsonarik indartsuenak eta ausartenak zirela frogatzea, indartsuak eta ausartak izateko aukera zutela eta izateko aukera dugula aldarrikatzea baizik. Eta batez ere, ez dugu alderdi produktiboa, emozionala, erlazonala edo zaintzaren gainetik dagoela irudikatu nahi.

Pentsa ezazu frogatu egingo balitz garai hortako jendarteetan, diskurtso historikoetan deskribatzen diren genero rolen banaketa zurruna ematen zela. Emakumeen ekarpenak baliogabetzen jarraitzeko aitzaki erabiltzen jarrituko genuke? Bidezkoa izango litzateke iraganeko emakumeen bizitzak ikusezin mantentzen jarraitzea?

Honako haueetan pentsa dezazun nahiko genuke:

- Klaneko haur txikienez inor arduratu izan ez balitz, posible izango litzateke gaur egungo jendarteak existitzea?
- Urteko sasoi guztietan jan ahal izango zuten, emakumeek landare fruta eta beste jakirik bildu izan ez balituzte? (Bilketak garaiko dietaren %70a susotatzen zuela uste da).
- Gizonek ehizara joateko aukera izango zuten, bitartean emakumeek taldeko txiki eta nagusiak zaindu ez balituzte?
- Joan zitekeen Josemari arropa garbiarekin bulegoko lan jardunaldi luzera, Marijosek ez balu garbigailua jartzeko ardura bereganatu? **“Benoa... agian hau gaur egun gertatzen denaren irudikapena da... Hobeto gerorako uzten badugu”.**

Honekin guztiarekin bi mezu argi eta garbi geratzeko nahi dugu:

1. **Zaintzarik gabe mundua gelditzen da!** eta hau buruan sartu behar zaigu.
2. **Tradizioz maskulinoetat jo diren rola eta estereotipoak, femeninoak baino balio sozial, ekonomiko eta kulturak handiagoa dute.** Eta honen frogak, lagun maitea, unitate guztian zehar aurkituko dituzu.



BAZENEKIEN?

Gizonak II Mundu Gerran borrokatzen ari ziren bitartean AEBko emakumeak fabriketako lanak bereganatu zituztela? Gerra bukatu zenean emakumeak berriro ere etxe-eremuan kokatzeko ahalegin bereziak egin ziren. Itzulera hau bultzateko eta emakumeei munduan izan behar zuten lekua gogorarazteko historiaurreak paper garrantzitsua jokatu zuen, gizon-ehiztari (Lanera fabriketara doana) eta emakume zaintzailearen (etxean geratzen dena) rol "naturalak" justifikatzeko historiaurreko azteketak argudiotzat hartuz. **Jendartean mezu hori indartzeko, Harriketarrak telesaila sortu zen, Vilma eta Betty emakumeek jarraitu beharreko eredu bezala irudikatuz.**



ARKEOLOGIA FEMINISTA

Hona hemen Denbora Ierro Feminista karta joko osatzeko jaso ditugun lehenengo ekarpenak:



Ikerlariak hilobia aurkitu zuten momentuko hipotesia gizon boteretsu baten aztarnen aurrean zeudela izan zen. Emakumea zela frogatu zenean ordea, elkarri galdetu zioten, salbuespena ote da honako aurkikuntza hau? ohikoa izango zen emakumeak ehizatzea?

Galdera horri erantzuteko, datuak alderatzen hasi ziren eta konturatu ziren **ehizarako tresnekin lurperatu zituzten 27 pertsonetatik 11 emakumeak zirela, 15 berriz gizonak.**

Ez zen egunkaririk izan aurkikuntza honen berri eman ez zuenik. Pentsa dezakezunez, zalaparta handia sortu zuen, izan ere, **historiako mitorik boteretsuenetako bat deseraikitze baliogarri izan zen** -Historiaurrean gizonek bakarrik ehizatzen zuten-.

Ziurrenik, hainbat zalantza sorrarazi dizkizu informazio berri honek, ezta? Ea azalpen hauek baliagarriak zaizkizun!

Historiaurreko jendarteak berdinzaleak ziren?

Bai, baina ziur ez pentsatzen ari zarengatik. Almudena Hernando arkeologaren arabera, lehen giza taldeak (ehiztari-biltzaileak) berdinzaletzat jo daitezke. Izan ere, gizon, zein emakumeek, taldea bizirauteko beharrezkoak ziren lanak egiten zituzten. Hau honela, **batzuen eta besteen arteko pertzepzioa parekidea zen.**

Beraz, garai hartan ez ziren funtzioak generoaren arabera bereizten?

Normalean, emakumeek gauza batzuk egiten zituzten eta gizonek beste batzuk (Hala ere, aurrez ikusi dugun moduan, hau ez zen beti horrela izan). Garrantzitsuen da, batzuk eta beste batzuk egiten zuten hori balio berbera zuela. **Ehizaren jarduerari aitortzen zitzairen zaintzen gaineko balioa**, egungo irakurketa da.

Funtzio banaketa ezberdin horiek ia oharkabean desberdinkeria bihurtuz joan ziren. Jendarteek nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpen sistemak garatu zituztenean geratu zen hau agerian. Izan ere, **lan espezializatuak agertu ziren eta taldearen barruko homogeneotasuna apurtzen hasi zen.**

Orduan zer gertatu zen?
Noiz sortu ziren desberdinkeriak?

Eta, zergatik?

Erabaki kultural, sozial, eta politikoengatik, batik bat. Une batean, norbaitek ondokoek baino botere pixka bat gehiago hartzen du (gizonak). Orduan **konturatzen da hori abantaila dela eta hau horrela jarrai dezan ahaleginak egingo ditu.**

Patriarkatua da. Emakumeei etxeko eremuarekin lotutako papera esleitu zaie. *Eta zein da arazoa? Ez al da egia jendarte gehienetan emakumeek zainketa-lanetan eman dutela denbora gehiena?* Arazoa da rol horiek balorazio sozial desberdina dutela, eta, **ondorioz, emakumeen kalterako, hierarkia eta desberdintasunean oinarritutako harremanak sortzen dira.**

Izenik ba ote du honek guztiak?

Balio gutxiago eman bazaie ere, **historiaurreko emakumeek, esperientzia, ezagutza, harreman eta teknologia berritzaile ugari pilatu zituzten, horregatik da hain garrantzitsua hauek guztiak aintzat hartzea.** Hona hemen eredu batzuk:



Castellon altuko aztarnategian **lurperatutako 106 pertsonen hortz-higaduraren analisiak agerian utzi zuen kokalekuan bizi ziren 5 emakumek beren hortzez laguntzen zirela hari-ekoizpenarekin lotutako zereginak egiteko, emakumeen lanaren espezializazioaren eredu bat**, alegia. Haginetako higadura horiek hainbat adinetako emakumetan identifikatu izanak, (haginen geroz eta higadura handiagoarekin, emakume hauek nagusiagoak ziren heinean), ikaskuntza prozesu, teknika eta jakintzaren transmisioa agerian uzten ditu.



IKERKETA BATEK FROGATU ZUEN: DUELA 7.400 URTEKO EMAKUME EUROPARREK BAZITUZTEN CAMBRIDGEKO UNIBERTSITATEKO ARRAUN KLUBEKO ATLETEN ANTZEKO BESO INDARTSUAK EGITEN ZUTEN LAN MOTARI ESKER (EHOTZEA, LANDATZEA, UZTA BILTzea...)

Jendarte ehiztari-biltzaileekin alderatuta, elikagaiak lortzeko moduetan aldaketa nabariak aurkitu daitezke jendarte nekazari-abeltzainetan. Lan moten aldaketak, garaiko gizon eta emakumeen gorputzetan agerikoak ziren. **Ikerketa batek frogatu zuen duela 7.400 urteko emakume neolitiko europarrek Cambridgeko Unibertsitateko arraun-klubeko atleten antzeko beso indartsuak zituztela.** Arrazoia? Emakumeek asumitu zituzten lan motak (ehotzea, landatzea, uzta biltzea...) eta hauek egiteko moduak izanik.


Fisikoaz ari garela... Historiaurreko emakumeen erreferente bisualen bat izenda diezazun eskatuko bagenizuke, zein izango litzateke? **Willendorfen eskultura ezagutzen al duzu? 25.000 urte ditu, eta pubis markatu, bular handiak eta sabel eta ipurmazail zabalak dituen emakume bat irudikatzen du.** Aurpegia txano edo orrazkera berezi batez estalia duela ikus daiteke.



Willendorfeko venus (1908. urtean aurkitua)

Bitxikeri bat kontatzea nahi? 2017. urtean, Laura Ghianda artistak eskultura honen argazki bat eskegi zuen Facebook-en, eta zer egin zuen Facebookek? irudia zentsuratu zuen, sare sozial honetako algoritmoak irudi pornografiko arriskutsutzat jo baitzuen.

Egia esan, figuratxo hauei buruzko ikuspegi mugatzaile hori nahiko zabalduta egon da. Utzi ideia hau garatzen...



LAUREGIE BASSERENEN VENUSA AZTARNATEGI BATEAN AURKITUTAKO HISTORIAURREKO LEHEN GIZA IRUDIA DA.

Zortzi zentimetroko altuera eta 15.000 urte inguruko antzinatasuna duen eskultura honek besorik eta bururik gabeko emakume nerabe bat irudikatzen du. Aurkitutako Historiaurreko lehen giza irudia izan zen. Irudi honi izen bat emateko, Cnidoren Afrodita hartu zuten inspirazio iturri, eta hauxe erabaki zuten:

Cnidoren Afrodita, Venus pudikoa izenez ezagutzen zen, pubisa eskuekin estaltzen baitzuen. Beraz, estatuatxo berriari izen bat emateaz arduratzen zirenek pentsatu zuten: "hau pudikoa baldin bada pubisa estaldu egiten duelako..."



"...honako hau Lauregie Basseren Venus Inpudikoa izango da".



Teorietako askok, gizonen osatutako helburu erotikodun figuratxoak direla sostengatu dute, eta hauxe da orain arte ezagutzen diren 200 figuratxo baino gehiagori ematen zaien azalpen mugatu eta zabalduea.

Beste hipotesi batzuen arabera, autoerretatuak izan daitezke, beren gorputzak behatzen zituzten emakumeek egindako eskulturak edo garaiko edertasun kanonen errepresentazioa. Beste batzuk, ordea, zintzilikariak, jainkosak... izan daitezkeela argudiatu dute.

Dagoeneko Historiaurrean zehar osatu dugun bidaiaren amaierara iristeko zorian gaude. Zer iruditu zaizu? interesgarria, ezta? Aipatu ditugun aurkikuntza guztiez gain, bestelako ebidentziak badaude zeintzuek **garai hortako emakumeak esploratu, bidaiatu, larruak ondu eta jendartearen garapenerako oinarrizkoak izan diren bestelako tresnak sortzen** zituztela frogatzeko balio izan duten (ba ahal zenekien aurkitu izan den lehenengo biberioa Brontze Garaikoa dela?) 😲

Beharrezkoa da arkeologia feministan aurrera pausuak ematen jarraitzea, ziur gaude, honi esker aurkikuntza eta zenbait ikuspegi berri izango dugula datozen urteetan!



Europako Arkeologia eta Genero Komunitatea (EAO) antzinako eta oraingo jendarteetan generoa aztertzeke interesa duten arkeologoen sarea da. Sare honek bilatzen dituen helburuen artean honakoak aurkitu daitezke:

- Arkeologia feminista ikerketa-eremu finkatu gisa ezartzea eta sustatzea;
- Arkeologia feminista arkeologia-irakaskuntzako ikasketan parte gisa ezartzea;
- Genero-arkeologiari buruzko ikerketa akademikoei eta, oro har, jakinaraztea.

Denbora askoz gehiago pasa ahalko genuke Historiaurreko kontuez hausnartzen, baina aurrera egiteko garaia iritsi da!





ANTZINAROA

Iritsi gara Antzinarora! idazketaren asmakuntzarekin eta hiri, lege, estatu eta erlijio handien sorrerarekin lotzen den garai historikora. Garai honetan, kontinente guztietan, garrantzi handiko zibilizazio ugari sortu ziren: Sumeria, Antzinako Egipto, Antzinako Txina, Mesopotamia edo Mesoamerikako eta Andeetako zibilizazioak, besteak beste. Hala ere, kasu honetan, **Mediterraneo aldeko Antzinako Grezia eta Erroman egingo dugu gure geldialdia!**

Izakiek bizimodu nomadak utzi zituztenean, estratifikazioaren, desberdinkeriaaren, eliteen, eta esplotazioaren historia eta, honekin batera, jendarte patriarkalaren sorrera hasi zen. Aurrerago, xehetasun gehiagoz aztertuko badugu ere (eta salbuespenak ikusiko baditugu ere), garai eta eremu geografiko **honetako emakumeak gizonen aginte patriarkalaren mende zeuden, aitaren autoritate maskulinotik senarrarenera pasatuz, etxeko eta bizitza publikoko rol zorrotzen artean bananduak**. Ezin dezakegu ahaztu garai honetako emakumeak (eta gizonak) ez zirela talde heterogeneo bateko kide, izan ere, **esklabua-hiritarra edo jatorrikoa-kanpotarra izateak bizitzak zeharo baldintzatzen zituen**.

Azalpen motz hau Antzinaroan kokatzen has zaitezzen baliogarria izan zaizula espero dugu, dagoeneko martxa hartu eta Greziar garaiko hainbat mito ezagutzera pasako gara!

EZ KONTATU IPUINIK!

Ziur gaude noizbait, Disney edo Grimm anaiek, beren ipuin eta pelikulen bitartez, genero estereotipo edo maitasun erromantikoaren mitoen eraikuntzan izan duten eraginaz hitz egin dizutela. Harritu egingo zaitu jakiteak ez zirela lehenengoak izan eta gutxi edo ezer berririk ez zutela asmatu. Izan ere, **Grekoek, beren elezahar, poesia eta tragedien bitartez, emakumeentzat zuzena eta okerra zenaren oinarriak definitu eta sostengatu zituzten**. Onerako edo txarrerako, zibilizazio grekolatinoa mendebaldeko kulturaren sorreraren oinarri da, beraz, interesgarria izan daiteke mito horietako batzuek izan duten eraginaren inguruan haursnartzea. Eta, bai, dagoeneko ezagutzen gaituzu eta zure intuizio-gaitasuna primerakoa da, hona hemen, Antzinaroa aztertzeke proposatzen dizugun lehenengo erronka!





Zein izango da zure eginkizuna ondorengo erronkan? Elezahar hauek irakurtzera gonbidatzen zaitugu, ondoren, aurkituko dituzun galderak erantzun itzazu:


Pandoraren kutxa:

*Elezaharrek dioenez, bazen garai bat non emakumeak existitu aurretik, gizonak zoriontsu bizi ziren, hala ere, Zeus jainkoak ezkutatua zuen sua falta zitzaien. Prometeo titanak Zeusi sua lapurtu eta gizonei oparitu zien. Zeusek mendeku gisa Hefestori buztinez osatutako objektu bat sortzea eskatu zion. Objektu horri Afroditak edertasuna eman zion, Hermesek elokuentzia, Ateneak jakinduria, Apolok musika, eta beste jainko eta jainkosa batzuen eskuetatik gezurra eta sedukzioa ere jaso zituen. Hau honela, **Pandora sortu zuten, lehenengo emakumea.***

Zeusek Pandora oparitu zion Epimeteori (Prometeoren anaiari) eta honekin batera kutxa itxi bat, inola ere ireki behar ez zen kutxa bat, alegia. Epimeteok emakumearen edertasunaz liluraturik, Pandorarekin geratzea onartu zuen, honek zekarren kutxa leku seguru batean gordez.

Behin, Epimeteo lo zegoela, Pandorak -jakin-minak bultzatuta- kutxa zabaltzea erabaki zuen. Kutxa zabaltzerakoan bertatik alde egin zuten jendartearen gaitz guztiak, munduan zehar zabalduz: gaixotasunak, sufrimenduak, gerrak, goseteak, inbidiak, haserreak... Hala ere, Zeusek kutxan sartutako gaitz guztiak ihes egin baino lehen, Pandorak, kutxa ixtea lortu zuen, itxaropena kutxaren barruan gordetzea lortuz.

Zer irudikatzen du Pandorak? eta, ondorioz, zer irudikatzen dute emakumeek elezahar honen arabera?





Metamorfosia (Ovidio): Medusa.

Medusa Atenea jainkosaren tenpluko emakume apaiz ederra zen. Poseidon jainkoak Medusa bortxatu egin zuen Atenea jainkosaren tenpluan. Ateneak bortxaketa errespetu faltatzat jo zuen, baina Poseidon zigortu beharrean, bere amorru guztia Medusaren aurka bota zuen. Bere ile ederra suge bihurtu eta begietara begiratuko zuen edonori harri bihurtzeko ezaugarria eman zion.

Une haratatik aurrera Medusa izaki gaizto bihurtu zen. Atenea, Medusa haurdun geratu zela konturatu zen, hau horrela Perseori, Medusa hil zezan eskatu zion. Medusak lo hartu zuenenan, Perseok burua moztu zion.



Zer irudikatzen du Medusak? eta Ateneak? Zein hartzen da bortxaketaren errudun gisa?

Erronka interesgarria egin bazaizu, jakin dezazun emakumeak protagonista diren garaiko beste hainbat elezahar eta tragedia badaudela; Troyako Helena, Eco ninfa eta Narciso edo Homeroren Iliada, Odisea... besteak beste.

Baliteke erronka bete bitartean zure buruari galdetu izan "Tira, baina hauek elezaharrak dira "ipuinak" besterik ez, hainbesteko eragina izan zuten garaiko jendartean? Eta gurean? zeinek sinistuko luke gaur egun horrelakorik? **Eta gure erantzuna horrelako zerbait izango litzateke:** "Guztiz normala da harritzea! baina kontuan izan testu hauek guztiak Mendebaldeko zibilizazio garrantzitsuenetako baten sorreraren oinarria izan zirela, ulergaitzak zituzten gertakariei azalpenak emateko erabiltzen zituztenak. Tamalez, mito hauetatik jainkoak, sugeak edo titanak kenduta, nahiko errealak bihur daitezke."

Mito hauek egungo jendartean duten eraginaren eredu bat emango dizugu, entzun duzu noizbait "laranja erdiaren" kontua maitasun eta bikote harrenez hitz egiterakoan? Ziur gaude egungo pelikula edo liburuetan mito hau identifikatzea ez zaizula gehiegi kostatuko. Baina, badakizu noizkoa den eta nondik datorren kontu hau?

BAZENEKIEN?

Ba al zenekien laranja erdia edo maitasun Platonikoaren ideiak, Platon filosofo Greziarrak garatutako "Androginoaren Mitotik" sortuak direla?

Platonek garatutako mitoaren arabera, lurra dualak eta osoak ziren izakiz osatua zegoen, alegia, sexu ezberdinetako ezaugarriak zituzten izakiez (emakumea-emakumea/gizona-gizona eta emakumea-gizona) irudian ikuz dezakezunaren antzekoak:

Izaki hauek Olinpo mendia inbaditzen saiatu ziren Zeus jainkoaren haserrea piztuz. Hau honela, Zeusek **izaki hauek bitan zatitzeko erabakia hartu zuen, pertsona erdi osatu gabeak beste erdia bilatzera betirako zigortuz.**




Antzinako testuek emakumeei buruz hitz egiten dutenean (kontuan hartu beharra dago hauetako askotan emakumeak ez direla agertzen) **mezu argi bat plazaratzen dute:** "kontuz emakumeak gertu badituzu, bertuterik gabeko izaki ahul eta arriskutsuak baitira". Ideia honetan sakontzeko, erronkan jaso ditugun mitoen inguruan elkarrekin hausnartuko dugu. Pandorarekin hasiko gara!

PANDORAREN KUTXA:

Pandoraren kuntxaren elezaharretik atera daitezkeen oinarritzko ideiak honako hauek izan daitezke:

- *Emakumeak dira munduko gaitz guztien sortzaile. Beraz kontuz beraiekin!*
- *Emakumea objektu bat da, sari bat, edo madarikazio bat (Kosifikazioaren eredu bat, alegia).*
- *Emakumeen edertasunak gizonak hondamendira eraman ditzake.*

Pandora kutxa irekitzera eraman zuen jakimina hori, Evak sagarrari kosk egin edo Loti ederrari goruarekin ziztatzera eraman zion bera da.



MEDUSA:

Ovidioren Metamorfosian, Medusaren mitoak honakoa adierazten du:

- *Emakumea eta bere edertasuna da jasandako bortxaketaren erreduna. Gizona (Poseidon kasu honetan), aldiz, emakume honengatik sentitutako erakarpenaren biktima (Bortxaketaren kulturaren eredu mitikoa).*
- *Emakume baten etsairik okerrena beste emakume bat izango da.*

Eraikitako ideia hauetako batzuk ia aldaezin iraun dute denboran. Medusa bortxaketaren erruduna zen ederregia zelako, Miren mozkortuta itzuli zen etxera, Norak gona motzegia zeraman edo Sarak ez zion behar adina eutsi. Ezagunak egiten zaizkizu horrelakoak?

Maria Hesak, "Emakume gaiztoak" deituriko liburuan, Nevenka Fernandezek bizi izandakoarekin alderatzen du. Nevenka Fernandezek (Ponferradako zinegotzia) bere nagusiaren (hiriko alkatea zena, Ismael Alvarez) eskutik jasandako jazarpena salatu zuen 2001ean.

Begirada eta zalantza guztiak Nevenkarengan zuzendu ziren. Arrazoa? emakumea, gaztea eta polita izatea. Epaiketa irabazita ere, Ingalaterrara emigratzera behartuta ikusi zen. Emakumeak lanik aurkitzen ez zuen bitartean, bere jazarleak herritar askoren babesu jaso zuen. Imajinatuko duzun bezala, kasu hau ez da salbuespena.



Ukaezina da kontakizun hauen influentzia mendeetan zehar mantendu den iruditegi kolektiboaren eraikuntzan. Baina hau gutxi izango ez balitz, **garai honetan filosofia sortuko da, jendartearen diziplina zaharrenetarikoa izango dena.** Grezia pentsamendu honen sehaskatzat hartuta dago. Ezin zaitugu ikusi, baina ziur gaude momentuko zure espresioak honen antza izango duela: 🧠

Pentsalari Grekoek pentsamendu filosofikora jauzia egin zuten, arrazoituz, **emakumeak diren hori guztia ez dela fantasia hutsaren ondorio, zerbait "naturala" baizik.** Hau da, babes intelektuala eman ziotela emakumeen bazterketa eta mendekotasunari. Hau guztia azaltzeko, unitate didaktikoaren atal berri bat aurkeztu nahi dizugu, sar dadila...





Kaixo! eta ongi etorri guztioi Denbora Lerro feministaren atal berrira "Gizon jakitsuak" emakumeen inguruan hitz egiten, emakumeekin hitz egin gabe". Gure gaurko gonbidatuak Aristoteles, Platon eta Socrates dira. Ongietorri!

Eskerrik asko gonbidapenagatik!

Bai, mila esker benetan, egia esan, oso toki gutxitan azaldu ahal ditugu gure ideiak.



Tira, aurrera egin dezagun. Esango zenigukete zein izan den emakumeen inguruan bota duzuen esaldirik ospetsuena:

Axola ez bazaizue ni hasiko naiz, zaharrena naiz eta: "Beldur gehiago izan emakumearen maitasunari gizonaren gorrotoari baino".

Aupa Socrates! zugandik asko ikasi nuen. Nire esaldia honako hau litzateke: "Hainbestekoa da emakumearen ergelkeria, non arazo guztietan bere buruaz ez fidatzea eta senarrari obeditzea baitagokio." Kar, kar, kar. Aristoteles, zure txanda!



Eskerrik asko, Platon irakatsi zenidan guztiagatik. Hor doa nirea: "Gizonak dirudite, ia gizonak dira, baina hain dira apalak, non, ugaltzeko ere ez dira gai, seme-alabak gizonak sortzen dituzte", kar, kar, "Hazia jasotzeko ontzi hutsa baino ez dira emakumeak"

Eleberrietako mito eta filosofo hauen ideien artean desberdintasun nabaririk ikusten duzu? Imagina dezakezun bezala ideia hauek sekulako influentzia izan zuten garaiko zibilizaziotako emakumeen bizitzetan. Gaur egun sortea dugu izan ere ez dira horrelakorik entzuten... edo bai?? Hona hemen erronka berri bat! Ondorengo esaldiak Kristo aurretik edo Kristo ondoren botatuko matxiruladak ote?

Ondorengo esaldiak irakurri eta identifikatu "X" batekin , K.a. edo K.o. matxiruladak diren. Bukaeran erronkaren erantzunak aurkituko dituzu!



ESALDIAK	K.a.	K.o.
1. "Gorroto ditut nire teiltupean bizi diren emakume jakintsuak, nik baino gehiago dakitenak, emakume bati komeni zaiona baino gehiago dakitenak"		
2. "Beti gorrotatu izan ditut gizon bigunak (...) gizona bere lekuan egon behar du eta emakumea bestean, ez dago zalantzarik".		
3. "Emakume maitekor eta lerroa, zeruaren bedeinkazioa da"		
4. "Printzipio on bat dago, ordena, argia eta gizona sortu dituena, eta printzipio txar bat, kaosa, iluntasuna eta emakumea sortu dituena"		
5. "Emakumeak etxea eta isiltasuna gorde behar dituzte, beti"		
6."Emakumeak informazio-iturri apartak dira. Emakume bati begiratzeko adinako pazientzia eta umiltasun profesionala izanez gero, edozein emakumek, ergelek ere, balio dute gauza berriak deskubritzeko"		
7."Gizonak inutilak gara sukaldean, aldiz, emakumeak ez duzue futbolearen jolasten"		
8."Maite nuen, baina hil egin behar izan nuen, sei oin eman behar izan nizkion lurpean, eta oraindik kexuka entzun dezaket".		
9. "Emakumea ona izango balitz, jainkoak bat izango luke".		
10. "Neskatoek bizitza osoan jasaten dute zakilaren inbidiaren trauma, anatomikoki osatu gabe daudela ohartu ondoren "		

EMAKUME PENTSALARIAK

Eta emakume filosofoak zer? Ez zegoen emakume pentsalaririk antzinako Grezian? Bai, bazeuden eta oso garrantzitsuak gainera. Hala ere, hauetako batzuk ezagutu baino lehenago garrantzitsua da hiru ideia nagusi aipatzea:

1. Emakumeak, oro har, paper publikorik ez zuten garai batean kokatu behar ditugu.
2. Ez dugu garai honetako emakumeek idatzitako dokumenturik, Saforen bertso batzuk eta gizon pentsalariak hauen inguruan jasotakoak kenduta.
3. Emakume hauen lana "diskurtso txikiak" bezala hartuak izan ziren kasu askotan, honek, ziurrenik, informazio asko galdu izana suposatzen du.

Aipatuko ditugun emakume hauek, irakasleak, eskola filosofikoen sortzaileak, poetak eta jakintza zientifikoa sortu zituzten, eta hori guztia emakumeak gutxiago eta mendekoak zirela ontzat hartzen zuten zibilizazio batean!



Askoren ustez, Greziako **Themistoclea lehenengo emakume filosofoa litzateke**, Delfoseko apaiz emakumea bazen ere, eskola pitagorikoan izandako influentzia argia izan zen. Diogenes Laercio aipatua utzi zuenaren arabera, Pitagorasek Themistoclearen eskutik jaso zituen bere dogma etikoak. Beraz, **Pitagorasek irakaslea izateaz gain, zirkulu pitagorikoko lehen emakumea ere izan zen.**

Sekta eta doktrina honen ezaugarrietakoa bat zen emakumeak bere baitan onartzen zituela.



Mantineako Diotima, Platonen aipamen baten bidez bakarrik ezagutzen duguna, **eragin handia izan zezakeen atenastar filosofo ezagunen ideietan.** Banketearen elkarrizketan, Platonek Atenas zaharreko gaualdi baten inguruan hitz egiten du, non, pertsonaia garrantzitsu talde bat - guztiak gizonak- afaltzeko elkartzen diren. Halako batean, gonbidatuek maitasunaz eztabaidatzea erabakitzen dute, eta Sokratesek hitza hartzen du garai haietan harrigarria zen zerbait esateko: maitasunaz zekien guztia (eta bestelako hainbat gauza) emakume batek irakatsi zizkiola, Mantineako Diotimak, hain zuzen ere.



K.A.470.
URTEA

MILETOKO ASPASIAK ERAGIN HANDIA IZAN ZUEN PERIKLESEN MENDOKO ATENASEKO BIZITZA KULTURAL ETA POLITIKOAN. BERE EKARPEN GARRANTZITSUEK GINEKOLOGIAH AURKI DAITEZKE. IZAN ERE, HAURDUNALDI ARRISKUTSUAK PREBENITU, DETEKTATU ETA ERDITZE ONDORENERAKO SENDABIDE NATURALAK SORTU ZITUEN.

Erretorika irakaslea, eragin handia izan zuen Periklesen Mendeko Atenasko bizitza kultural eta politikoan. **Miletoko Aspasiaren ekarpen garrantzitsuenak ginekologian aurki daitezke, izan ere, haurdunaldi arriskutsuak prebenitu, detektatu eta erditze ondorenerako sendabide naturalak sortu zituen.** Antzinako idazleen idazkietan Aspasia hetera zela jasotzen dute (Antzinako Greziako gortesaua, alegia). Hala ere, egungo ikerlariak kontakizun hauek zalantzan jarri dituzte, garaiko autoreetako asko Aspasia difamatzea helburu izan zezaketen idazle satirikoak zirelako.



350

ALEXANDRIAKO HIPATIA ERREFERENTZIA DUGUN LEHEN ZIENTZIALARIETAKO BAT DA. ESKOLA NEOPLATONIKOAN IRAKASLE OSPETSUA IZAN ZEN ETA ZIENTZIARI EKARPEN GARRANTZITSUAK EGIN ZIZKION MATEMATIKAREN ETA ASTRONOMIAREN ARLOETAN.

Alexandriako Hipatia erreferentzia dugun lehen zientzialarietako bat da. Eskola neoplatonikoan irakasle ospetsua izan zen eta zientziari ekarpen garrantzitsuak egin zizkion matematikaren eta astronomiaren arloetan, besteak beste. Hipatia modu basatian hil zuen kristau talde batek, zibilizazio klasikoetatik Erdi Aroko iluntasunerako urratsaren sinbolo bilakatuz.



K.A.630.
URTEA

SAFO LESBOSKOA IZAN ZEN ANTZINAKO GREZIARRAK BEREN ZIBILIZAZIOKO POETA HANDIEN ARTEAN BARNERATU ZUTEN EMAKUME BAKARRA.

Safo Lesboskoa izan zen antzinako greziarrek beren zibilizazioko poeta handien artean barneratu zuten emakume bakarra. Egia esan, oso gutxi dakigu Safo buruz, antzinako Greziako poetarik onenari buruz, alegia. Bitxikeria bezala, aipagarri da zeramikan erretratatu zuten emakume bakarretako bat izan zela, gaur egun telebistako saio batean audientzia handieneko ordutegian agertzearen pareko litzateke honako hau. Lesbianismoaren ikonotzat hartua izan da (Bai, Lesbosen Saforengatik erabiltzen dugu lesbiana hitza gaur egun) Izan ere, emakumekiko, sentitzen zuen desioari buruz idatzi zuen.

ETA ERROMAN ZER?

Antzinako Grezian Erromatar Inperiora egingo dugu salto. Kontuan izan Erromatar Inperioak egun ezagutzen ditugun Italia, Frantzia, Espainia, Portugal, Marruecos, Argelia, Tunez, Malta, Egipto, Siria, edo Grezian zehar garatu izan zela, besteak beste. Hau honela, jendartean izan zuen influentzia uka ezina da.

Erromatarrek oso erlijioitsuak ziren, izaki eta jainkoen arteko oreka eta bakea funtsezkoa zen bizitzaren iraupenerako, edozein hutsegite, txikia bazen ere, jainkoak haserretu eta izakientzako gaitzak ekar zitezkeen. Rosa Cid Lopez adituaren arabera, erlijioaren eragina hain zen handia, non Erromako Panteoneko jainko eta jaikosen errepresentazioek, parekotasun handiak zituen jendartearen egiturarekin, pertsonak egin zezaketena eta egin ezin zutena finkatuz, bereziki emakumeen kasuan. **Eta zein zen Erromako emakumearen eredu perfektua? Juno jainkosa, ezkontzaren, ugalkortasunaren eta familiaren jainkosa.** Hau sorpresa hau!



IZENA: Juno.

- Ezkontza, ugalkortasuna eta familiaren jainkosa.
- Emakume erromatarrek jarraitu beharreko jainkozko eredu.



IZENA: Postumia Matronilla.

- Izaki emakume perfektuaren eredu bezala hartua izan zena. Bere inguruan honakoa idatzia aurkitu da:

"Postumia Matronilla, emazte paregabea izan zen, ama ona, amona ukatua, kastoa, errukitsua, langilea, zorrotza, eraginkorra, arduratsua, sentibera, gizon bakar baten laguna bizitza osoan, zeinaren ohea partekatzen zuen bakarra izan baitzen, matriarka neketsua eta fede onez betea, berrogeita hamahiru urte, bost hilabete eta hiru egun bizi izan zena." (CIL.VIII. 11.294, Zaatili, Tunez).

BAZENEKIEN?

Ba al zenekien garai honetako neskei zuzendutako panpinak aurkitu direla?

Honakoa, Creperia Tryphaena gazte erromatarren hilobian aurkitu zen, K.o. II. mende ingurukoa izanik. Marfilez osatutako panpin honek emakume baten gorputz heldu bat irudikatzen du. **Neskek txikitatik zaintzen ikas zezaten helburua izan zezaketela uste da.**



Erligioaren eta legeen arteko harremana oso estua zen garai honetan, hain estua, non **emakume perfektuaren betebeharrak nagusietako bat beren semei (bai, seme gizoni) eskubideak transmititzea zen.** *Barkatu, baina, ez dut ezer ulertzen? Nola semei transmititzea? eta alabak, erromatar garaiko emakumeak ez zituzten eskubiderik? Egia esan, eskubide askorik ez zituzten...* Hau guztia motelago azalduko dizugu.

Gizon Erromatarrak (gizon jaiotzeagatik) eskubide osoko hiritar gisa hartuak ziren, emakumeak, ordea, (emakume jaiotzeagatik) hiritarrak ziren bai, baina eskubiderik gabeko hiritarrak. Hala ere, emakumeen zeregina funtsezkotzat jotzen zen, izango zituzten semeak etorkizuneko eskubidedun hiritarrak izango zirelako, aldiz, alabek etorkizunean semeak izango zituzten, zeintzuk, eskubidedun hiritarrak bilakatuko ziren. Hau honela, ez zaitu gehiegi harrituko, **emakumeekin zerikusia zuten garaiko lege gehienak amatasunarekin eta ondorengotzarekin zer ikusia** zutela esaten badizugu. Hona hemen eredu bat:

BAZENEKIEN?

Ba al zenekien Erromatar garaiko emakume hiritarrak 3 seme (mutil) edo gehiago bazituzten hainbat eskubide bereganatzeko aukera zutela?

Lege honek *"ius trium liberorum"* izena zuen, hiru semeen eskubidea, alegia. Lege honek 3 seme edo gehiago zituzten emakumeei zuzendutako hainbat pribilejio arautzen zituen.



Hau guztia nahiko izango ez balitz, zuzenbide erromatarrak ez zien mesede handiegirik egin emakumeei **"fragilitas sexus"** (sexu ahula) gisa definitu zituenean. Emakumeak beren bizitza osoan adingabetzat hartuak ziren, eta ondorioz, tutore bat behar zuten *"pater familias"* deiturikoa, (aita edo senarra, hots). Gizona familiaren baitan ordena mantentzearen eginkizuna zuen, eta seme-alabei zegokionez edozein erabaki hartzeko eskubidea ere bai. Desberdinkeria horien guztien eredu Catón (K.a.II.), idazle, politikari eta mitilar erromatarrak aipatutakoa har daiteke: *"senarrak emakumea adulterioa egiten harrapatzen badu, zigorrik gabe hil dezake, aldiz, emazteak, senarra harrapatzen badu, ezin izango du hatz bat ere ukitu"*.

Horregatik guztiagatik emakumeak etxean egon behar zutela ulertzen zen, arrazoi puntualak kenduta; tenplura, termanetara, zirkura edo antzokira joateko, adibidez. **Baldintza guztiak betetzen zituzten emakumeak matrona gisa izendatuak ziren.** Gizonen espazioa, aldiz, publikoa zen, hau da, politikoa. Izan ere, botere espazioak gizonak zuzentzen zituzten (Tribuna, Curia edo Senatua, adibidez). Pentsa dezakezue, eskubide politikoak betatuak zeuden emakumeentzat, botoa emateko eskubidea, esaterako.



GIZONA:

ROLA: Pater familias.
ESTATUSA: Eskubidedun hiritarra.

- Etxeko ordena mantentzea eta emazte, zein seme-alaben gaineko erabakiak hartzea.
- Eskubide zibil eta politikoen jabea.
- Eremua: Publikoa-politikoa.
- Arrazionala, boteretsua, indartsua.



EMAKUMEA:

ROLA: Matrona.
ESTATUSA: Eskubiderik gabeko hiritarra.

- Ezkondua dagoen gizonarekin eskubidedun hiritarrak izango diren semeak (alabak ez) izateko betebeharra.
- Eskubide politiko eta zibilen igorlea.
- Eremua: Etxea-pribatua.
- Ama, fidela, sentibera, errukitsua, zaintzailea.



Hau guztia kontuan izanda, badakizu emakume hiritarren egoera, hiritarrak ez ziren emakume, esklabu, kanpotar edo familia amabakarrak baino askoz hobea zela. Emakume hauetako asko bizitza etxetik kanpoko eremuan ere garatzen zuten, artisauak ziren, negozioak zituzten, etxe dirudunetan edo landa eremuetan lan egiten zuten.

Moralak eta legeek emakumeak mendeko egoeratarako kondentatzen bazituzten ere, legeko zirrikituak baliatu zituzten eskubideak lortzeko eta bizi zituzten egoeren gaineko kezka agertzeko. Hona hemen adibide batzuk:



Lex Opia Erromatar Errepublikan indarrean egon zen lege bat izan zen, K.a. 195. urtean indargabetu zutena. **Lege murriztailea zen emakumeentzat; izan ere, debekatu egiten zitzairen urre kopuru bat baino gehiago eramatea, soineko koloretsu eramatea eta hiritik gertuegi gurdiak eramatea, erritu erlijiosoetarako ez bazen.** Emakumeak lege honen aurka agertu ziren eta garian jasotakoetan oinarritutako jakintza dagoen **emakumez osatutako lehen mobilizazioak izango ziren:**

"Agintariek ezin zituzten matronak kontrolatu, lotsarik gabe manifestatzen ziren eta ez zituzten senarren aginduak onartzen; beren etxeak utzi, kaleak hartu, foroaren atarietan finkatu, eta, zeuden gizonen, lehen jantzi zituzten apaingarriak berreskuratzen uzteko eskatzen zieten " (Tito Livio XXXIV,1).



Hortensia erromatar foroan sartu zen, beste emakume batzuekin batera, eta hizlarien tribunara igo zen, emakumeen jabetzei ezarritako tasaren aurkako iritzia adierazteko. **Emakume batek hitzez eremu publiko-politikoan okupatu zuen lehen aldiz hartua da** honako hau:

"Emakumeak izanik, zuengana jotzen dugu, gizonengana, ez aurrez beste emakume batzuegana jo gabe. Fluviaren tratu desegokia jaso ondoren, fororantz joatea erabaki dugu. Zuei dagokigunez, gure semeez, senarrez, anaiez gabetu gaitzuenoi, estatuaren zerbitzurako zirelako aitzakiaz, orain gure ondasunak kendu nahi dizkiguzue, emakume jaiotzeagatik ohoregabe eta duintasunik gabeko utziz." (Guerras Civiles, IV,32).

Antzinaroan osatuko dugun bidaia bukatu baino lehenago, kontuan izan gertaera hauei buruzko informazioa gaur egunera arte osatu gabe iritsi diren erregistro historikoetan oinarritua egon daitekeela. **Iturri historikoak, askotan, gizonen gidatutako ekitaldi politiko eta militarretan zentratzen dira, eta, ondorioz, zailagoa da Antzinako Erromako emakumeen ekintza eta adierazpen espezifikoak berreraikitzea.**



Kleopatra Egiptoko azken erregina izan zen, (faraoi titulua eskuratuz) Julio Zesar eta Marko Antonio bezalako buruzagi erromatarrekin izandako harreman politikoagatik ezaguna, Kleopatra oso maitatua izan zen bere herriagatik, besteak beste, bere herrialdeko historiari eta kulturari zion miresmenagatik. Bere dinastiako lehena izan zen egiptoar hizkuntza ezagutzen, greziera hutsezko hezkuntza izan arren. **Bere edertasuna bere adimena baino gehiago goratzen den arren, diplomatiko bikaina izan zen eta mediku-tratatuak idatzi zituen.**

Kleopatra baino lehenago (gutxiengoa badira ere) **beste faraoi emakumeak ere egon ziren**, ezagutzen den **lehenengoa Hatshepsut litzateke** (K.a.1473-1458). Honek, **bere burua faraoi maskulino gisa irudikatzea erabaki zuen, bere autoritatea eta legitimitatea sendotzeko.**



Erromatar mitologian, Cloelia dontzeila gazte bat izan zen, elezahararen arabera etruriarrek bahitu bezala hartu zutena Erroma eta Clusiumen arteko gerran. **Cloeliak emakume talde bat gidatu zuen ihesaldi ausart batean, Tiber ibaia igerian zeharkatuz Erromara itzultzeko.** Bere ausardia eta lidergoa goraiatuak izan ziren.



Livia Drusila Augusto enperadore erromatarren (lehenago Oktavio bezala ezagutua) hirugarren emaztea eta Erromako enperatriz ezkontidea izan zen K.a. 14 urtean Augusto hil zen arte. C. Livia **sarritan nabarmentzen da bastidoreen atzean eragin politikoa izan zuelako.** Antzinako Erroman emakumeek eskubide legalik eta parte-hartze politiko formalik ez zuten arren, Liviak maniobra sotilak egin zituen zirkulu politiko eta familiarretan bere familiarren eta, hedaduraz, bere buruaren arrakasta ziurtatzeko. Emakume azkar eta estrategikotzat hartzen da, eta estatu-arazoetan eta oinordetza inperialen eragiten du.



ERDI AROA

Bidaiaren erdialdera iritsi gara, hona hemen Erdi Aroa! Erdi Aroa, siniskeria, gosea, pobrezia, basakeria eta iluntasunaren garaia bezala hartu da, baina hori guztia egia ote da? Ziurrenik, behin baino gehiagotan entzun dituzu "Erdi Aroa itzultzen ari gara" bezalako esaldiak inboluzioaren sinonimo gisa, aldiz, ezin uka daiteke, 1.000 urte inguru iraun zuen epe honek aurrerapen asko ekarri zituela. **Garaiko emakumeak murrizketa sozial eta erlijioso askori egin zieten aurre, kultura edo ekonomia ekoizpenean funtsezko rolak betetz, ezarritako arauak hautsiz eta jendarte-bilbe konplexua aberastuz.**

Erdi Aroari buruz dakizun guztia erakusteko garaia da! Erronka berri bat betetzera ausartuko zara? Badakigu oraindik ez dizugula informazio gehiegirik eman, baina animatu, jolastera etorri gara eta!



Erdi Aroko emakumeei buruzko baieztapen hauek egia edo gezurra diren adierazi.

ESALDIAK	EGIA	GEZURRA
1.Erdi Aroko emakumeek etxeko rolak baino ez zituzten betetzen, eta ez zuten bizitza publikoan edo ekonomikoan parte hartzen.		
2.Erdi Aroko emakumeak gizonen mende zeuden eta ez zuten inolako eskubiderik.		
3. Erdi Aroko emakumeek ez zuten jarduera komertzial edo artistikoetan parte hartzen.		
4.Erdi Aroko emakumeek ezin zuten ez jabetzarik.		
5.Sorgin-ehiza fenomeno hedatua izan zen, eta Erdi Aroko emakume askori eragin zien.		

Erronkaren erantzunak aurkitzea espero zenuen, ezta? Aurrera jarraituko dugu, dibertigarriagoa izango da, zuk zeuk zure ondorioak ateratzen badituzu.



BAZENEKIEN?

Europar testuinguruan Erromatar Inperioa distira garaia bezala hartua da, aldiz, Erdi Aroa garai ilun gisa. **Ba al zenekien Ekialde Hurbilak, Erdi Aroan zehar bizi izan zuela distira kultural, zientifiko eta ekonomikoko garai hori?** Garai eta kokapen geografiko honetan koka daitezke **Fatima al-Fihri** (Fezko Al Quaraouiye Unibertsitatearen sortzailea), **Razia Sultana** (Delhin (India) gobernatu zuen XIII. mendean. Islamiar historian estatu bat gobernatu zuen emakume bakarrenetakoa izan zen), **Sitt al-Mulk** (Mezenas bikaina izan zen eta seljukarren dinastia turkiarren gobernatu zuen) edo **Averroes** (filosofo, mediku eta legelari musulman gizona zen, emakume eta gizonen arteko berdintasun intelektualaren defendatzailea) bezalako pertsonai historiko garrantzitsuak.

Aurrera jarraitu baino lehen, garaiko jendartearen hainbat ezaugarri ezagutu behar dituzu. Gogora ezazu 333 zenbakia, lagungarria izango zaizu datorrena ulertzeko, izan ere ondorengoek emakumeen errealitateak zeharo baldintzatzen zituzten:

Garai hau

3

arotan banatu da.

- Erdi Aro **Goiztiarra** (500-1000)
- **Goi** Erdi Aroa (1000-1300)
- **Behe** Erdi Aroa (1300-1500)

Jendartea

3

estamentuen arabera banatua zegoen.

- **Erregea:** Agintari politiko gorena eta sarritan Elizarekin ere lotura izaten zuen.
- **Noblezia, aristokrazia eta kleroa:** Lurren eta eskubide berezien jabeak, eragin politikoa zutenak.
- **Herri xehea:** Biztanleriaren gehiengoa nekazariak, artisauek, merkatariek eta nobleziakoak edo klerokoak ez diren gainontzeko herritarrez osatua.

Boterea

3

egituren esku.

- **Eliza:** orientazio espiritual, hezkuntza eta eragin politikoetan eragin esanguratsua zuen.
- **Monarkia:** Erabaki politiko eta militarrek hartzeko autoritatea zuten.
- **Jaun feudalak:** Lur eta baliabideen gaineko kontrola.

Emakumeen eskubideak nabamen hazi ziren Erdi Aroko lehen alditik (Erdi Aro Goiztiarra), Erdi Aroko azken aldira (Behe Erdi Aroa). Baina zeintzuk izan ziren baldintzatzaile nagusiak?

EMAKUME ONAK VS EMAKUME TXARRAK

Erljiioarekin hasiko gara? Gogoratzen duzu Greziarrentzat emakumeak zirela munduko gaitz guztien eragile? Jakizu, Erdi Aroko kultur judu-kristaua ez zela zentzu honetan oso berritzailea izan. Zergatik izango gara gaiztoak izakiak? erantzuna erraza da, emakume batek eginiko bekatu originalagatik. Ziurrenik, munduaren jatorriaren kontakizun biblikoa ezagutuko duzu, Adan eta Evarena, alegia. Ba al zenekien, ordea, Eva baino lehenago **Lilith** deituriko emakume bat bizi izan zela Paradisuan?

Lilith gonbidatu bikaina izan daiteke *“Gizon jakintsuak” emakumeen inguruan hitz egiten, emakumeekin hitz egin gabe*” sekziorako ezta?



Kaixo! Eta ongi etorri berriz ere *“Gizon jakintsuak emakumeen inguruan hitz egiten, emakumeekin hitz egin gabe”* atalera. Oraingo honetan primerako gonbidatua dugu gurekin, Lilith, Paradisuan bizitako lehenengo emakumea. *Zergatik utzi zenuen Paradisua Lilith?*

Mila esker gonbidapenagatik. Egia esan nire bertsioa azaltzeko irrikitan nago!



Aurrera ba!

Paradisua deitzen zioten, baina niretzat ez zen hala izan. Gaizto gisa deskribatu naute emakumea askea bilakatu nahi izateagatik. Sortu nindutenean, emakume otzana izatea eta Adanek nire bizitzako esparru guztietan agintzea espero zuten. Baina egun batean egoera hortaz nazkatuta Paradisutik alde egitea erabaki nuen, itsaso gorritik hurbil bizitza berri bat hasteko.

Nire bizitza berregin nuen, haurrak izan nituen, hauek "deabruak" zirela esaten zuten. Paradisura itzultzeko saiakerak egin zituzten, baina ni zoriontsu nintzen nire bizitza berriarekin. Zigortu egin ninduten eta nire seme-alabetako batzuk hil zituzten.

Baina, nori bururatzen zaio sagar ziztrin batengatik, munduko emakume eta gizon guztiak kondenatzea?

Adanen saihets batez baliatuta, emakume berri bat sortu zuten, Eva. Oraingo honetan emakume independente bat arriskutsua izan zitekeela ulertu zuten, ondorioz Adanen emazte berria otzana eta menpeko izateaz arduratu ziren. Suge bihurtu nintzen paradisura itzuli eta neskari begiak irekitzen saiatzeko, baina ez zen ondo atera. Ongiaren eta gaizkiaren zuhaitz bat sortzearen idei bikaina izan zuten, Evaren jakin-mina izugarria zen eta fruitu debekatua dastatzea erabaki zuten, eta beno... badakizue ondoren zer gertatu zen.



Adan eta Evaren historia nola bukatzen den ez dakizula? Lasai, gure kontu. Kontakizun biblikoaren arabera Evak, Adan tentatu zuen fruitu debekatua dastatzera. Hau honela, jainkoak paradisuetik kanporatu eta zigorra ezarri zien. **Adan bere bekokiko izerdiarekin lurra landatzera zigortu zuen, Eva, ordea, erditze mingarri eta gizonekiko berdintasuna galtzera.**

Lilith errebeldea zen, menderakaitza, eta ez zituen senarraren aginduak onartzen. **Lehen emakumea, emakumeek izan behar ez zuten guztia irudikatzen zuen.** Eva, Adanen saihetsetik jaiotzeagatik otzana zen, hain ona, tuntuna ere bazela. Hau honela, emakumeak arazoetan sar ez zitezten gizon baten kontrolpean egotea ezinbestekoa zela ulertzen zen, jainko legez gizonak emakumeen autoritate bilakatuz. Laburbilduz, emakumeak -berriz eremunduko gaitz guztien errudun irudikatzeaz gain, euren sufrimendu guztiak zigor gisa jasotzea merezi zutela justifikatu zen.



BAZENEKIEN?

I. mendean, Israelen, erlijio kristauaren hedapena hasi zen Nazaretoko Jesus buru **zuen** judu emakume eta gizon talde batek abiarazia. Elisabeth Schussler teologoaren arabera, **Nazaretoko Jesusen lehenengo jarraitzaileak emakumeak izan ziren, menpekotasun patriarkaletik aldendu ziren emakumeak**, alegia. Emakume hauek harrikatzearen eta "*libero repudioaren*" (dibortzio modu bat non, emakumea gizonaren gustukoa izateri utzi ezker, etxetik botatzeko aukera zuen) aurka agertzen ziren. Erromatarrek hil zituzten lehenengo martirren artean emakumeak ageri dira, Santa Tekla horietako bat izanik.

Eliza katolikoa hierarkikoago eta boteretsuago bihurtu ahala, emakumeen zamei beste buelta bat eman zien teologo eta pentsalari handien eraginpean, Santo Tomas edo San Agustin, besteak beste. Hauei esker **Erdi Aroko hainbat ideia Erdia Aroan zehar biziraun eta gure egunera ere iritsi dira.** Hona hemen Santo Tomas edo San Agustinek garatutako hainbat ideia:



"Emakumea asto burugor bat da, zizare izugarri bat gizonaren bihotzean, gezurraren alaba, infernuko zaindaria, Adan Paradisuetik bota zuena." (San Agustin Hiponakoa).



"Emakume bat jaiotzen denean, hazia ahula, umetokiko materiala desegokia edo hegoaldeko haizea dagoelako da. Istripu bat da." (Santo Toma Akinokoa).

Kleroaren antolaketak hierarkia argia islatzen zuen, hau honela botere gehien suposatzen zuten horiek (Aita Santua, kardinalak, apezpikuak, artzapezpikuak...) gizonak bakarrik bete zitezketen, emakumeentzat posizio baxuenak bakarrik gordez, mojenak, alegia, haien lekua komentuetara mugatuz. Emakumeak hauetan sartzearen atzean zenbait arrazoi zeuden, batzuen kasu debozioa bera, beste batzuen kasu, ordea, segurtasun eta babesaren lortzea, hezkuntza jasotzea edo derrigortutako ezkontzetatik ihes egiteko arrazoiak aurkitzen ziren.

XII. mendetik aurrera (Goi Erdi Aroan), **Ama Birjinaren kultua** ezagunagoa egin zen, eta horrek emakumeen pertzepzioa hobetzea ekarri zuen. Ama Birjinaren kultuak emakume (Jesukristoren ama) batekiko debozio sakona suposatu zuen. Fededun guztiek Maria ama espiritualtzat hartzen zuten eta otoitzen bidez adierazten zioten maitasuna eta errespetua.



EMAKUME BEKATARIA

IZENA: Eva

- Jatorrizko bekatuaren erruduna.
- Tentazioa, desobedientzia, giza ahuleziaren eredu.
- Evaren eta erditze minaren arteko harremana: Sinbolo gisa erabilia. Evaren Bekatuaren ondorio dira izakiak bizi dituzten zailtasun eta sufrimenduak.



EMAKUME BIRJINA

IZENA: Maria Magdalena

- Maria jatorrizko bekatuarek gabe sortua izan zen.
- Apaltasuna eta obedientzia.
- Jainkoaren amatasuna: Maria Jesusen Ama bezala ezagutzen da, Jainkoaren Semea. Honek posizio berezi batean jartzen zuen.



Jada ez zeuden soilik emakume "txarren" (Eva edo Lilith) ereduak, emakume ona bat (Maria) ere bazegoen. Hain zen ona, non bere perfekzioa lortzea ezinezkoa zen gainontzeko emakumeentzat.

Ondorioz, emakumeak kolektiboki deabrutzen jarraitzeko ohitura mantendu zen, Ama Birjinaren perfekzioa islatzea ez baitzen erraza. Erdi Aroa Goiztiarrean baino hobeto ikusiak ziren emakumeak, baino honek ez zuen esan nahi Klero, noblezi edo oro har, gizonak beren pareko hartzen zituztenik. **Emakumea bekatari gaiztotzat edo jainkosa birjinaltzat ikusteak ez zuen emakumeak gizabanako gisa onartzeko aukerarik eskaintzen.**



Hala ere, kultu berri honek aukera berriak eskaini zizkien komentuetako emakumeei, zeintzuek adierazpen askatasunerako modu berriak aurkitu zituzten. XII. mendean, Frantzian sortutako ordena erlijioso berri batek jarraitzaile kopuru handi bat irabazi zuen, hauek **Beguinak** izena zuten.



1170



BEGUINAK, EMAKUMEZ OSATUTAKO KOMUNITATE ERLIJIOTSUAK ZIREN. HAUEK ELIZA KATOLIKOTIK AT GARATU ZITUZTEN EUREN IDEIAK. ELIZAREN USTELKERIA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK EZ AITORTZEAREN AURKA DAITZEUDEN. BURUASKIAK ZIREN ETA BIZI ZIREN KOMUNITATEETAN EKARPEN GARRANTZITSUAK EGIN ZITUZTEN.

Beguinak, XII. mendean, Flandrian eta Herbehereetan, Jainkoari eta behartsuenei entregatzeko nahia elkarrekin bizitzeko elkartzea erabaki zuten emakume kristauak izan ziren. Hori bai Eliza katolikotik at, honako hau ustelkeria eta emakumeen eskubideak ez aitortzeagatik arbuiazten baitzuten. Emakumez osatutako komunitatea sortu zuten, esperitualak ziren, kristau-erlijioarekin estu lotuak, baina ez mojak ez baitzuten Eliza erakunde gisa ulertzen. Beguinaje izeneko komunitateetan bizi ziren, **ez zeuden giltzapetuta, lan egiten zuten eta buruaskiak ziren, eskolak eta ospitaleak ere ezarri zituzten, tokiko komunitateen ongizatean eraginez. Zenbait adituk historiako lehenengo talde feministatzat hartu izan dituzte.**

Pixkanaka, komentuek kultura-zentro eta botere-iturri bihurtu ziren emakume askorentzat. Mojek ahalmena zuten beren ardurapeko langileengan, batzuetan sakramentuak emateaz ere arduratzen ziren, ospital edo umezurztegiak eraikitzeko erabakiak hartu ahal zituzten, eta dirua ere erabiltzen zuten. Azken hori zenbaiti ez zitzaien gehiegi gustatzen.



1298



PERIKULOSO IZENERO LEGE BAT DEKRATATU ZEN. LEGE HONEK EUROPARO MOJEN ORDEN GUZTIEN ITXIERA AGINTZEN ZUEN. LEGEAREN HELBURU NAGUSIA ZEN MOJAK ESKURATZEN ARI ZIREN ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK MUGATZEA.

1298an, Bonifazio VIII. Aita Santuak *Perikulo*so izeneko lege bat dekretatu zuen, **Europako ordena guztietako moja guztien itxiera agintzen zuena**. Lege honek helburu bikoitza zuen, emakumeak baimendu gabeko talde erlijiosuetatik (Beguinak adibidez) urruntzea eta eskuratzen ari ziren eskubide eta askatasunak mugatzea.

NOBLEZIA ETA KORTESIAZKO MAITASUNA

Erljioa alde batera utzita (Erdi Aroan Erljioa alde batera uztea ezinezkoa bazen ere) gainontzeko estamentu sozialak ezagutzera pasako gara. Erdi Aroan, **noblezia eta aristokraziako emakumeak** etxeko kudeaketarekin lotutako rola betetzen zituzten batez ere eta, askotan, ezkontza estrategikoen bidezko aliantza politikoak sendotzeko erabiliak ziren. Senarra falta zenean familia-jabetzen administrazioan parte hartzen bazuten ere, emakumeak gizonen jabetzat hartuak ziren oraindik.

Hala ere, aldaketa nabariak suposatuko zituen beste faktore historiko batean jarriko dugu arreta, **kortesiazko maitasunean**, alegia. XII. mendean, Europan sortutako literatur estiloa da honako hau, garaiko poesia eta nobelatan irudikatua zena. Maitasun idealizatu bati dagokio, sarritan zaldun eta dama noble baten artekoa, kortesia, errespetua eta debozioa tartean zituen. Zaldunen iruditegiak jokabide-kode bat suposatzen zuen, zeinak adorea, leialtasuna eta adeitasuna bezalako bertuteak biltzen zituen. Nobleziako emakumeak parte-hartze aktiboa zuten testuinguru honetan. Emakumeak musak izateaz gain, kultura sortu eta sustatzeko rola betetzen zituzten.

Barkatu, baina ez al du honek guztiak zerikusirik izango guregana iritsi diren maitasun erromantikoaren mitoekin, ezta? Bada, bai! lotura zuzen-zuzena, gainera. Egia da gaur egun ideia horiek gainetik kentzeko egiten ditugun ahaleginak izugarriak direla, eta esango dizugun hau kontraesankorra gerta badaiteke ere, kortesiazko maitasunak eragin positiboa izan zuen garaiko emakumeen bizitzetan, izan ere, hauek **emazte edo ama izatetik miresmena merezi zuten izaki gisa irudikatzen hasi ziren**. Motz motzean azalduko dizugu hau!



KORTESIAZKO MAITASUNA

Honako onurak suposatu zituen Erdi Aroko emakumeentzat:

- Emakumeak Erdi Aroko jendartean zuten garrantziaren aitortpen kulturala.
- Garaiko Kultur eta Literaturaren parte izateko aukera.
- Harremanetan kortesia edo pasioa lekua zuten ideal kulturalaren sorrera eta emakumeenganako maitasuna eta miresmena adierazteko oinarrien ezartzea.



MAITASUN

ERROMANTIKOAREN MITOAK

Erdi Aroko kortesiazko maitasunaren ideia batzuk iraunkor mantendu dira maitasun erromantikoaren pertzepzio modernoetan, hainbat mito eraten lagunduz:

- Bikotearen idealizazioa: bikotea perfektua izatea eta behar emozional guztiak asetzea espero da.
- Debozioa eta sakrifizioa: maitasunak ez du baldintzarik eta edozein oztopo gainditzeko gai da.
- Ekintza heroikoak: Maitasuna badago sakrifikatu beharra dago.
- (...)



Adi egon jarraian kontatuko dizkizugun gauza interesgarri hauei guztiei!



Amodioaren epaimahaiak maitasun erromantikoarekin eta gizonen eta emakumeen arteko harremanekin lotutako gaiak eztabaidatzeko biltzen ziren. Ez ziren benetako epaimahaiak, ekitaldi literario eta kulturalak baizik. Hauetan "maitasunaren damak" deiturikoak **maitasun eta harreman sentimentalekin lotutako kasuak epaitu eta hauen gaineko aholkuak ematen zituzten**. Sorrera urte konkreturik zehazterik ez dugu, hala ere, urtea zehaztekotan Andreas Capellanus-en "De amore" (1185) idatzian oinarritu gara, amodioaren epaimahiaren erreferentziak bertan aurkitu daitezke eta.

Erdi Aroko literaturan emakumerik nabarmendu bazen, Christine de Pizan izan zen.



Christine de Pizan (1364 Italia) Erdi Aroko idazle ospetsua izan zen, **idazkeratik bizi izan zen lehen emakumeetako bat**, alegia. Bere lanik ospetsuena 1405ean idatzitako "Damen Hiriaren Liburua" izan zen. Christinek, garai hartako misoginiari erantzunez, historian zehar emakume bertutetsuei eskainitako irudimenezko hiri bat eraikitzen du, beren lorpenak nabarmenduz eta emakumeez jendartearen izan duten paper garrantzitsua aldarrikatuz. **Obrak emakumeez bikaintasuna lortzeko duten gaitasuna defendatzen du, eta Erdi Aroko literatura feministaren mugarritzat hartu da.**



1200an emakume trobadoreen abesti kopuru handiena sortu zen Frantzia hegoaldean. Erdi Aroko mendebaldeko kultura, trobatrizaren irudia existitu zen, 19 inguru izan zirela kalkulatu da. **Hauek emakumeak Erdi Aroko kultura zuten parte-hartze aktiboaz eta bere zutabe ideologikoetako batez ere hitz egiten digute:** Kortesiazo maitasuna.

ERDIAROKO ARGI ILUNAK

Eta zer gertatzen zen herri xeheko emakumeekin? Erdi Aroan, klase baxuko emakumeak: okinak, garagardogileak, esne-saltzaileak, zerbitzariak, artisauak, ehuleak... baziren ere, batik bat, landa eremuan senarrekin eta seme-alabekin lan egiten zuten nekazari errentariak ziren. Lur hauek jaun feudalen esku zeuden. Jaun feudalek zerbitzarien bizitzaren alderdi guztiak kontrolatzen zituzten eta langileen emazte eta seme-alaben gaineko erabakiak hartzeko eskubidea zuten. **Beraz, garaiko emakumeak familiako gizon eta jauntxoan autoritatepean bizi ziren.**

Goi Erdi Aroan merkataritzak izan zuen gorakadak aukera gehiago eman zizkien emakumeei. Garai horretan, klase ertaina sortzen hasi zen eta merkatariek gai politikoetan eragiteko adina aberastasun lortu zuten. Emakumeek osatzen zituzten lan hauetako batzuen ereduak dituzu datozen karten bitartez azalduak!



Alewifeak Erdi Aroan eta garai moderno goiztiarrean garagardoa egiten eta saltzen zuten emakumeak ziren. Alewifeak etxean aritzen ziren, eta, askotan, beren produktuak zerbitzatzeko zituzten taberna edo ostatu txikien jabeak ziren. Zenbaitetan estigmatizazioa jasan eta estereotipo negatiboekin lotuak izan ziren. Garagardogintzaren profesionalizazio eta erregulazioak alewifeen parte-hartzea murriztea ekarri zuen, eta leku askotan, gizonak bereganatu zuten lan mota hau. **1540an (Aro Modernoan) Chester hirian 14-40 urte bitarteko emakumeei garagardoa egitea debekatu zitzaie, beren eginbehar nagusitik aldentzen zituela argudiatuz, amak izatea, alegia.**



Erdi Aroko ehungintza-gremioetan, emakumeek rol esanguratsuak betetzen zituzten. Haien partaidetza erregistro historikoetan sarritan gutxietsia izan zen arren, **emakume asko irule edo ehuleak ziren eta jantzien manufakturan lan egiten zuten.** Emakume batzuek beren tailerrak sortu, edo familia kideen esku zeuden horietan modu erabakigarrian lagundu zuten. Haien lanak tokiko ekonomia babesteaz gain, nolabaiteko autonomia ekonomikoa ere ematen zien. Data zehatzik ez badago ere, kartan jaso dugun ilustrazioaren sorrera urtea hartu da oinarritzat.


Honekin guztiarekin bukatu baino lehen, utziguzu emakumeen egoera nabarmen hobetu zuten azken bi faktore bitxi hauek azaltzen:



- **Izurri beltza:** Hainbeste pertsona hil zituen, emakumeek beren senar zenduen negozioen jabetza eta esplotazioa beren gain hartu ahal izan zutela.
- **Soldata-diskriminazioa:** Gremioen sistemen garapena eman zenean, emakumeak ez zeuden legez onartuak, ondorioz gizon batek baino gutxiago kobratu ahal zuten. Hau honela, hainbat negoziotan errentagarriagoa zen emakume bat kontratatzea, gizon bat baino.



Ziurrenik horrelako zerbait pasatzen ariko zaizu burutik: *Benoa agian egia da Erdi Aroa ez zela hain garai iluna emakumeentzat, ziur momentu honetatik aurrera gauzak hobetuz joan zirela! Egia esan hau ez zen guztiz horrela izan.* Erdi Aroko ibilbide historikoa kolorestatu beharko bagenu, kolore-paleta hau izango litzateke egokiena:



Ikusi duzun bezala Erdi Aroko emakumeak ez ziren patriarkatu erlijioso eta politikoaren biktima pasiboak izan, oztopoak gainditzea lortu eta bide berriak eraiki zituzten. Emakumeen eskubideak Behe Erdi Aroan iritsi ziren gorenera, eta orduan, **emakumeen posizio sozial berriak status quo-a mehatxatzen zuela aitzaki, sistema patriarkalak murrizketa gehiago ezartzeko bide berriak asmatu zituen.**

Gutxi gorabehera horrela laburtu daiteke gertatu zena:



MARIAREN KULTUA:

Ama eta emakume errukitsuaren figuraren bidez emakumeek jendartean zuten papera goratu zen.

KORTESIAZKO MAITASUNA:

Idealizazioa erromantikoaren bidez emakumeen estatus soziala hasi zen, garaiko kulturaren eta literaturan funtsezko papera emanaz.

GREMIO SISTEMAREN BANAKETA:

Artisau eta merkataritza-sektore batzuetan lan aukerak aurkitzen zituen.

IZURRI BELTZA:

Eskulana murriztu zuen eta ondorioz emakumeak lana eskuratzeko eta negozio edo lurak heredatzeko erraztasun gehiago izan zituzten.

SOLDATA DISKRIMINAZIOA:

Batzuetan gizonak baino errazago kontratatzen zituzten, gutxiago ordaintzen zirelako.



Bitartean gizon batzuk emakumeak mehatxutzat ikusten hasi ziren...


Eta orain zer egin dezakegu?



Badakit, soldata diskriminazioa debekatu dezakegu!



Norbaitek isildu dezala tuntun hau! Emakume guztiak sorginak direla esango dugu eta listo!



XIII. mendean sortu zen emakumeengan eragin nabarmenak izan zituen **inkisizioa**. Honen helburu nagusia herejia jazartzea bazen ere, emakume askori sorginkeria leporatu izan zitzaion. Sorginkeria hau medikuntza, belar ezagutza, ortodoxia katolikotik kanpoko praktika espiritualak miretsi edo ezarritako arauak desafiatzen zituzten emakumeekin lotzen zen. Pertsona askoren iruditegian sorgin ehiza Erdi Aroan eman zen, hala ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, Aro Modernoan (XVI-XVII) jo zuen goia.

Tira ba, Erdi Aroarekin bukatzetik gertu gaude, hala ere, deboraren makinaren norabidea Aro Modernora zuzendu baino lehen beste hainbat emakume zoragarria aurkeztu nahiko genizkizuke!



Chen Shuozhen Tang dinastian bizi izan zen emakumea zen. 653. urtean nekazarien matxinada zuzendu zuen. Ondoren, enperatriz gisa aldarrikatu zuen bere burua, **Txinan titulua eskuratu duen emakume lider errebelde bakarra** bilakatuz.



Aisha bint Abi Bakr-ek paper garrantzitsua izan zuen islamiar historian. Mahomaren emaztea zen eta honakoa hil eta gero figura publiko garrantzitsua bihurtu zen. **Lege islamikoa eta kultur ezagutza zabalak izateagatik izan zen miretsia**, sarritan lege-arazoak ebatzea eskatzen zioten. Bere etxean bertan emakumeei zuzendutako lehen eskola sortu zuen.



Jacqueline Felice osasungintzan izan zen ezaguna. Legez kanpoko jardunbideengatik izan zen epaitua, lizentziarik gabe medikuntzan ziharzuelako, antza. Felicek eramaten zituen pazienteak berarekin, gizon batengana joatea lotsa ematen baitzitzaien. **Feliceren laguntzarik gabe, ez zuketzen tratamendurik izango.**



1100

TROTA DE SALERNO ERAGIN HANDIKO MEDIKU-ITUNEN SORTZAILEA IZAN ZEN. HORIEN ARTEAN "EMAKUMEEEN SENDABIDEA" DELAKOA AURKITU DAITEKE. HONETAN, GINEKOLOGIA, OBSTETRIZIA ETA KOSMETIKAREKIN LOTUTAKO GAIAN LANTZEN ZIREN.

Trota de Salerno **eragin handiko mediku-itunen sortzailea** izan zen, horien artean "Emakumeen Sendabidea" delakoa aurkitu daiteke, honetan, ginekologia, obstetrizia eta kosmetikarekin lotutako gaiak lantzen ziren.



575

AL-KHANSA POETA ARABIAR OSPETSUA ZEN LEHIAKETA PUBLIKOETAN GARAILE ATERA ZENA BEHIN BAINO GEHIAGOTAN. HISTORIAKO EMAKUME ARABIAR POETA OSPETSUNETARIKOA BEZALA HARTUA DA.

Al-Khansa poeta arabiar ospetsua zen lehiaketa publikoetan garaile atera zen behin baino gehiagotan. **Historiako emakume arabiar poeta ospetsuenetarikoa izan da.**

Orain bai, Erdi Aroan zehar osatutako bidaiaren amaierara iritsi gara!





ARO MODERNOA

Zelan doa bidaia denboraren makinan? 🕒 **Aro Modernoaren** ibilbide liluragarrian murgiltzera goaz, non emakume ausarten eta gizon kementsuen istorioak kolore dardaratiekin eta lorpen harrigarriekin beteriko aro batean gurutzatzen diren!



Pentsa ezazu zientziaren aitzindari ziren emakumeek garai hartako arauak desafiatu zituzten mundu bat. Aro Modernoak iragan hori birirudikatzen gonbidatzen gaitu, non emakumeak presente egoteaz gain, itxaropenak gidatu, sortu eta desafiatu zituzten! Aro Modernoaren orrialdeak artea, zientzia eta filosofia eraldatu zituzten **jeinu errenazentistekin** idazten dira.

Gaia sartu aurretik, erronka bat proposatzen dizugu, bai horixe! 😊

Hasierako informazio hau gogorarazten dizugu, erronka egin ahal izateko koordinada garrantzitsuak baitira.



Aro Modernoa jendartean, zientzian eta teknologian eragin sakona izan zuten asmakizun eta aurkikuntzen lekuko izan zen. Jakingo zenuke asmakizun bakoitza bere garaian kokatzen?

 Iparorratza	 Garbigailua	 Jeringa	 Betaurrekoak	 Erlojua
 Trena	 Inprenta	 Unibertsitateak	 Hegazkina	 Mikroskopioa
 Bolbora	 Wifia	 Dirua	 Lantza	

Ez dago adostasun unibertsalik Aro Modernoaren hasiera- eta amaiera-data zehatzei buruz, baina **XV. mendearen amaieratik XVIII. mendearen amaierara edo XIX. mendearen hasierara arte** izaten da, gutxi gorabehera.


Hasiera Errenazimenduak markatzen du, zientzia, artea, literatura eta arkitektura irauliko zituenak eta Erdi Aroari amaiera emango zionak. Ikuspegi honetatik, Aro Modernoan modernotasunaren balioak (progresoa, komunikazioa eta arrazoia) nagusitzen dira, **baina gogoratzen zer aipatu dugun Erdi Aroko atalean?** 🤔

Pizkundeko hainbat pentsalarik euren ideiak Erdi Arokoekin alderatuta oso bestelakoak zirela uste bazuten ere, **gaur egungo zenbait adituren arabera hau ez zen guztiz horrela izango, Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren artean desberdintasunak eta berdintasunak** ere baitaude. Beraz, badirudi gauzak ez direla kontatu dizkiguten bezain sinpleak, ezta? 🚩

Nolanahi ere, etapa hau XV. mendearen bukaera eta XVI. mendearen hasieran kokatuko dugu, gertakari garrantzitsu hauekin: 1453 (Konstantinoplaren erorialdia), 1453 (Ehun Urteko Gerraren amaiera), 1455 (inprentaren asmakizunaren ustezko data), 1492 (Kristobal Kolon Amerikara iristean), 1512 (Nafarroako konkista) eta 1517 (Martin Lutherren erreformaren hasiera), besteak beste. Bukaerari dagokionez, zalantza gutxiago daude. Oro har, Frantziako Iraultzak markatzen du aro honen amaiera eta hurrengoaren hasiera. Hortik aurrera hasiko dira Industria Iraultza, sistema kapitalistaren hasiera, burgesia, borroka proletarioa... eta beste hainbat eta hainbat gauza.

Baina hori dena badakizu, bidaiaria! 🏹🏹 Horregatik, istorioaren beste alde deskubritzera gonbidatzen zaitugu, batzuetan kontatu ez digutena, eta, era berean, hau guztia ere zalantzan jartzera, zergatik ez?

Aizu, eta honetaz ari garela, nola uste duzu bidaiatuko dugula Aro honetan? Itsasontziz? Oinez? Trenez bidaiatu ahal izango dugu? 😊😊😊



Aro Modernoak aldaketa sozial, politiko eta kultural sakonak suposatu zituen, eta garai hartako genero-murrizketei aurre egin zieten emakume nabarmenen agerpenaren lekuko izan zen. Pizkundetik hasi eta Ilustrazioa arte, emakume horiek historian ezin ezabatuko arrastoa utzi zuten, eta norbanakoen lorpenengatik ez ezik, indarrean zeuden egitura patriarkalei aurre egiteagatik ere nabarmendu ziren.

Hemen daude **Aro Modernoarekin** lotutako **ezaugarri eta gertaera garrantzitsu** batzuk:

Errenazimendua (XV-XVI. mendeak):

Errenazimentuak Grezia eta Erroma zaharreko arte, kultura eta ezagutza klasikoaren interesa berpiztu zuen. Pintura, eskultura, literatura eta filosofian aurrerapen esanguratsuak egin ziren.

Esplorazioa eta aurkikuntzak (XV-XVII. mendeak):

Garai hartan, espedizio garrantzitsuak egin ziren, eta, horien ondorioz, lur berriak eta merkataritza-ibilbideak aurkitu ziren. Cristobal Colon eta Magallanes bezalako pertsonaiek berebiziko garrantzia izan zuten garai honetan.

Absolutismoa (XVII-XVIII. mendeak):

Europar estatu absolutista asko sortu eta sendotu ziren, non erregeek botere zentralizatuarekin gobernatzen zuten eta administrazioaren eta politikaren zati handi bat kontrolatzen zuten.

Ilustrazioa (XVII-XVIII. mendeak):

Ilustrazioa arrazoiaren, zientziaren eta askatasunaren aldeko mugimendu intelektuala izan zen. Voltaire, Rousseau eta Montesquieu bezalako filosofoek garaiko ideia politiko eta sozialetan eragina izan zuten.

Iraultza Zientifikoa (XVII-XVIII. mendeak):

Aldaketa esanguratsua gertatu zen jendarteak mundua ulertzeko zuen moduan, Galileo Galilei, Johannes Kepler eta Isaac Newton... figuren ekarpenekin.

Kristobal Kolonek ez zituen Amerikak aurkitu, kolonizatu egin zituen.



Indietara iritsi nahi dut mendebaldetik joango naiz...



Ziur gaude gertakari horiek guztiak, baita garai honetako erreferente nagusiak ere, ezagutzen dituzula, bai horixe! nork ez du entzun haiei buruz hitz egiten? Baina "*Denbora Lerro Feminista*"n txanponaren beste aldea ezagutzera gatoz. Emakumeak, gertaerak, istorioak... ezagutzea, ez hain ospetsuak, baina gaur egun garen bezalakoak izatera eraman gaituztenak.

Horregatik, **Sofonisba Anguissola eta Artemisia Gentileschi** Errenazimentuko artistak ezagutzea nahi dugu. Halaber, **Malinche eta Jeanne Baret** aurkeztu nahi dizkizuegu, esplorazioaren garaian genero-itxaropenak oso testuinguru desberdinetan desafiatu baitzituzten. Era berean, ilustrazioak, arrazoimenean eta giza eskubideetan arreta jarrita, berdintasunaren alde egitera inspiratu zituen **Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraft** bezalako emakumeak ezagutuko ditugu. Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, "**sorgin-ehiza**" izenez ezagutzen dena ikusiko dugu, botere misoginoak antolatutako eta fundamentalismo erlijiosoak legitimatutako feminizidioa izan baitzen.

Geneologia feminista bilatzera eta egitera ere gonbidatzen zaituztegu, hainbeste istorio daude deskubritzeke! 🌸😊🌸



ESPLORAZIOAK KONKISTAK

Amerikaren konkista, historian kapitulu konplexu eta eztabaidagarria, askotan ikuspegi maskulinoetatik kontatu izan da. Garai honetako balentrien eta erronken artean, Malinche, Nzinga Mbandi eta Jeanne Baret bezalako emakume nabarmenen istorioak itzalean geratu dira sarritan. **Emakume horien istorioek nabarmendu egiten dute emakumeen esperientzien konplexutasuna eta aniztasuna** aldi erabakigarri honetan. Bere ekarpenak gogoratzean eta ohoratzean, urrats bat ematen dugu historia inklusiboago bat eraikitzeko bidean, Amerikaren konkistaren erronkei aurre egin zieten emakumeen aberastasuna eta erresilientzia aitortuko dituen.


Ezin dugu ahaztu **esklaboen merkataritza transatlantikoak Afrikan eta Amerikan** izandako eragin suntsitzailea. Ezinbestekoa da sistema esklabistaren basakeria eta esklabo bihurtutako pertsonak aurre egin behar izan zieten erronkak nabarmentzea.

1500



MALINTXE TABASCOKO (MEXIKO) INDIGENEN ALDE ESPAINIARREI ESKAINITAKO 19 EMAKUME ESKLABOETAKO BAT IZAN ZEN. MALINTXEK HAINBAT HIZKUNTZA EZAGUTZEN ZITUEN, NAHUA, MAIA CHONTAL ETA MAYA YUCATECO. GAINERA, ERRAZ IKASI ZUEN GAZTELANIA. TREBETASUN HORRETAZ BALIATU ZEN INTERPRETARI GISA **ESPAINIARREN KONKISTAN EUTSI AHAL IZATEKO.**

MALINTXE (Tabasco-Mexiko) espainiarrei eskainitako 19 emakume esklaboetako bat izan zen. Malintxek hainbat hizkuntza ezagutzen zituen, nahua, maia chontal eta maya yucateco. gainera, erraz ikasi zuen gaztelania. Trebetasun horretaz baliatu zen interpretari gisa **espainiarren konkistan eutsi ahal izateko.**



1583



NZINGA Mbandi EMAKUME AFRIKAR OSPETSUENETAKO BAT IZAN ZEN LAU HAMARKADATAN PORTUGALDARREK ANGOLAN ZUTEN OKUPAZIOAREN ETA BERE HERRIAREN ESKLABOTZAREN AURKA BORROKA SUTSUA EGITEAGATIK. LIBURUEK GERRARI AUSART ETA ADIMENTSU GISA DEFINITZEN DUTE, XVII. MENDEAN AFRIKAK **KOLONIALISMOAREN AURKA ZUEN ERRESISTENTZIAN FUNTSEZKO FIGURA IZATERA IRITSI ZEN.**

Nzinga Mbandi emakume afrikar ospetsuenetako bat izan zen lau hamarkadatan portugaldarrek Angolan zuten okupazioaren eta bere herriaren esklabotzaren aurka borroka sutsua egiteagatik. Liburuek gerrari ausart eta adimentsu gisa definitzen dute, XVII. mendean Afrikak **kolonialismoaren aurka zuen erresistentzian funtsezko figura** izatera iritsi zen.

1740



JEANNE BARET BOTANIKA ETA ESPLORATZAILA FRANTSESA IZAN ZEN. GIZONEZ MOZORROTUTA MUNDUARI BIRA EMAN ZION LEHEN EMAKUMEA. IA HAMAR URTEZ HAINBAT ESKUALDETAN NABIGATZEN ETA BISITATZEN IGARO OYDORREN, JEANNE BARET PARISERA ITZULI ZEN.

Jeanne Baret botanika eta esploratzaile frantsesa izan zen. **Gizonez mozorrotuta munduari bira eman zion lehen emakumea** izan zen. Ia hamar urtez hainbat eskualdetan nabigatzen eta bisitatzen ibili ondoren, Jeanne Baret Parisera itzuli zen.

ERRENAZIMENDUA

XV-XVI. MENDEAK

Errenazimenduaz ari garenean, litekeena da Leonardo da Vinci, Michelangelo eta Rafaelen izenak etortzea burura, baina zer gertatzen da Aro horretako jendartearen beste erdiarekin?

Emakumeek ez al zuten parte hartu aldaketa horietan?

Berpizkunde horren erdian, **Sofonisba Anguissola eta Artemisia Gentileschi** bezalako artista nabarmenak agertu ziren. Anguissolak, XVI. mendeko margolariak, genero-itxaropenei aurre egin zien, Isabel Valoiskoa erreginarenean tutore bihurtu baitzen Espainiako gortean. Bestalde, XVII. mendeko Gentileschi Barrokoko emakume margolari bakanetako bat bezala nabarmendu zen, gai boteretsu eta dramatikoak jorratuz.

Argi dago, baina duela urte batzuk arte inork ez zuen guri buruz hitz egiten!



Sofonisba Anguissola Italiar margolaria izan zen, Errenazimentuko lehen emakume margolari arrakastatsua. Baina, artea ezagutzen dutenentzat eta kritikarientzat izan ezik, gaur egun izen ezezaguna da askorentzat.



Artemisia Gentileschi XVII. mendeko artista italiar garrantzitsuenetako bat eta ezezagunenetako bat ere bai. Suposatzen dugu emakume izateak ez zuela bere alde jokatu, nahiz eta bere kide (gizon) asko baino trebeagoa izan.


BAZENEKIEN?

Greziarren artean bazen ezkontza mota bat, bahiketa bidezko ezkontza. Ezkontza horietan, zeremoniaren zati bat bahiketa bat balitz antzetzen zen. Erritual honetan, senargaiak neskalaguna altxatzen zuen bahiketa baten itxurak eginez. Ezeguna egiten zaizu "ohitura" hau? Ezkontza batzuetan ikus dezakegu, batez ere zinemak elikatuta, senargaiak emaztegaia besoetan altxatzen duela. Ba al zenekien senargai batek emaztegaia besoetan hartzen duen bakoitzean, ezkontza batean sarrera arrakastatsua egiteko, oharkabean erreproduzitzen duela Antzinako Grezian bahiketaren teatralizazioa?



Emakumeek historian utzitako aztarna ez ohi da gizonena bezain ikusgarria izaten. Inoiz erreparatu al diozu zure herriko kaleen izenei? Herri eta hiri gehienetan oso emakume izen gutxi daude kale izendegian, eta, gainera, gehienak errege-erreginen familia eta ahaideak dira edo erlijioari lotutakoak.

Zein da zure herriko errealitatea? Erronka honetan kalera ateratzera gonbidatzen zaitugu! Arakatu zure herriko kaleak eta jaso horietako zenbat diren emakumeen izenak.



PATRIARKATUAREN SUSTRAITZEA KAPITALISMOAREN SORRERA ESTATU MODERNOAK

Aro Modernoan gertatzen den beste funtsezko egitate bat **sexu-desberdintasunaren kultura da**, genero bakoitzerako ezaugarri bereziak dituzten bi sexuen arteko ezberdintasuna ezartzen duena, eta XVIII. eta XIX. mendeetan jendarte garaikidearen eraikuntzaren oinarrietako bat izango dena. Egun horietan, jendarteak uste zuen gizonak eta emakumeak oso desberdinak zirela. Gizonak indartsuak, ausartak eta abenturazaleak izatea espero zen. Bestalde, emakumak gozoak, sentikorak, eta arduratsuak izan behar zutela pentsatzen zen.

Antzinaro eta Erdi Aroan, emakumeak gizonak baino gutxiago zirela uste zen (hori ere ez da gauza bikaina jakina 😞), baina Aro Modernoan emakumeak eta gizonak erabat desberdinak zirelaren ideia sortu eta indartu zen.

Aro Modernoan ere, "**emakume onak etxean geratzen direnak dira**". Orain ikusiko dugu horrek zerikusia duela **kapitalismoaren jatorriarekin**. Eta zuk, bidaiaria, esango duzu, *baina zein harreman du guzti honek kapitalismoarekin? Bada, gizonak produzitzeko, emakumeek etxean geratu eta haurrak zaindu behar zituzten, etxeko lanak egin... eta, gainera, doako eskulana zen.* Eta orain bai harritu, badakizu Sorgin Ehiza etapa honetan kokatzen dela? 🧙🧙🧙 Bai, lagun!

Silvia Federicik horrela azaltzen du <<Caliban eta Sorgina>> liburuan:



Liburuan sorgin ehizari buruzko istorio korapilatsu bat kontatzen digu. Garai hartako boteretsu batzuek, negozio arraroetan sartuta zeudenek (esklaboek merkataritza eta Amerikaren konkista, adibidez), ez zuten nahi jendea ohartzea libre bizi gintezkeela haien mende egon gabe. Orduan, sorginen biribilki hau asmatu zuten jendea izutzeko eta, batez ere, emakumeak geldiarazteko.

Baina hori ez da dena! Federicik diosku Eliza nahaste-borraste honetan sartuta zegoela eta heresiaren aitzakia erabiltzen zuela arauak bete eta errebeldegiak ziren pertsonak geldiarazteko. Norbaitek antisorgailuak erabiltzen bazituen edo sexu festak taldean bazituen, Elizak esaten zuen hori ez zegoela ondo. Baina, tira, Federicik gonbidatzen gaitu konturatzeraz istorio honek ere baduela bere alde eroa eta pentsarazten digu nola eusten zion jendeak, eta hori bai dela zirrargarria!

Aldi horretan, patriarkatuaren errotzea sendotu egin zen, eta emakumeek gizarte-diziplinari aurre egin behar izan zioten. "Sorginak" sorgin ehiza baten biktima bihurtu ziren, beldurraren eta kontrol sozialaren adierazle. Aldi berean, kapitalismoaren eta estatu modernoaren sorrerak erronka eta aukera paregabeak ekarri zizkien emakumeei.

Ez ziren sorginak: alargunak, sendatzaileak, emakume independenteak, emakume migratuak, emaginak, emakume pobreak, baztertuak... baizik, eta ez zuten betetzen beren genero-rol arauemailea; gainera, biktima izan ziren hondamendi naturalak, epidemiak, gaixotasunak eta era guztietako ezbeharrak justifikatzeko.

Guztira, 300 urteko tortura eta errepresioa izan zen, **gure historiako feminizidio-gertakari handienetako bat**, eta, gainera, emakumeen ugalketa-praktika eta antzinako medikuntza-ezagutza kontrolatzeko eta usurpatzeko balio izan zuen.



Aro Modernoan sorginkeriaaren akusaziopean izandako exekuzio kopuru zehatza inoiz ezagutuko ez dugun arren, badakigu hilketa horiek Estatuak eta Elizak bultzatutako jazarpen handi baten parte izan zirela, hiru mendetan zehar izua zabaldu baitzuen komunitate askotan mendebaldeko Europan zehar. Milaka emakume erahil zituen.

BAZENEKIEN?

Sorgin-ehiza jolas eta dibertsio bihurtu da, Estatu Batuetan bezala; izan ere, Halloween gauean, neska txikiek «sorgin-kapelak» jantzi eta «trick or treat» -ean (trikimailua edo tratua) jolasten dute. «Sorginak» elezahar, jolas eta folklorearen objektu bihurtzen diren unean, iratxoen eta maitagarrien irudimenezko mundu baten zati, benetako sorgina/historikoa, baserritar/artisau/emagin torturatua eta eraila ikusezin bihurtzen da, historiatik ezabatuta geratzen da, baita barregarri ere.



ILUSTRAZIOA

XVII-XVIII. MENDEAK

Argien Garaia edo Ilustrazioa, XVIII. mendean bereziki, Europan eta baita Ameriketara ere, garatu eta zabandu zen mugimendu intelektuala izan zen. Arrazoia eta ezagutza jendartearen aurreratzearen ardatz aldarrikatzen zituen eta modernitateari azken bultzada eman zion. Argien Garaia deitu zen arrazoia gizakia eta gizartea argitzen zituen tresna zela sinesten zutelako horren jarraitzaileek, Erdi Aroko garai ilunetik askatze aldera. Baina lehen aipatu bezala, agian ez zen hain garai iluna? 🤔

Ilustrazioak, arrazoiari eta berdintasunari egindako deiarekin, jendartearen emantzipaziorako oinarriak ezarri zituen. Hala ere, emakumeak ideal horietatik kanpo geratu ziren, eta beren eskubideak aitortzeko borroka luze baten hasiera markatu zuten. **Olympe de Gougesek eta Mary Wollstonecraftek**, beren hitzen eta ekintzen bidez, **feminismoaren lehen olaturako bidea** argitu zuten, emakumeak eskubide unibertsaletatik kanpo uztea zalantzan jarri eta genero-berdintasunaren etengabeko bilaketaren haziak landatu baitzituzten.



Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena, Olympe de Gougesek, Frantziako Iraultzaren testuinguruan, idatzi zuen agiri bat da. Urte bi lehenago, Frantziako Biltzar Nazionalak Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena onartu zuen, emakumeak barne hartzen ez zituena. **Gabezia hori konpondu nahian idatzi zuen Gougesek bere agiria, aurrekoa oinarri hartuta. Testu feminista aitzindaria da.**




Emakumeen eskubideen bindikazioa, ingelesezko jatorrizko izenburua "a Vindication of the Rights of Woman: with Strictures on Political and Moral Subjects" literatura eta filosofia feministako lehen lanetako bat da. Mary Wollstonecraft da idazlea eta bertan XVIII. mendeko teorialari politiko eta hezitzaileek defendatzen zuten jarreraren aurka egin zuen, hain zuzen, emakumeen hezkuntzarako sarbide ezaren kontrako jarreraren aurka.



BAZENEKIEN?

Emakumeen martxa Versaillesen Frantziako Iraultzaren esparruan izandako gertaera izan zen. Gertakizuna Parisko merkatuetako emakumeen artean hasi zen, prezio altuaren, ogiaren eskasiaren eta eskubide faltaren aurka protesta egiten ari baitziren. Berehala manifestariek bat egin zuten erreforma politiko liberalak eta Frantziarentzako monarkia konstituzionala eskatzen zuten iraultzaileekin.



XVIII. mendearen amaieratik eta XIX. mendearen hasieratik, Europan, herritarren eskolatzearen garrantziaren ideia nagusitu zen. Baina, **hezkuntzaren unibertsalizazio horrek, hasiera batean, emakumeak baztertzen zituen**, eta eskoletara sartzea geroagoko zerbait izan zen, oinarrizko hezkuntzara mugatutako gutxiengoa, eta, jakina, mutilena ez bezalakoa. Horrela, neska eta mutilen bereizitako eskola ezarri zen.

Rousseauk teorizatutako arrazoiak, besteak beste, honako honetan oinarritzen ziren: emakumeen patu soziala, ama eta emazte izatea, gizonena ez bezalako hezkuntzarako arrazoi zela. Rousseau (1712-1778), XVIII. mendeko maila teoriko eta politiko gorenetakoa bat, misoginiaren sustatzaile garrantzitsua izan zen, emakumeen ordena politiko eta sozialean duten papera definitu eta espazio pribatura mugatu baitzuen.

Egia tristea da pentsamendu hezitzailearen historialariek ez ikusiarena egin diotela Rousseauren aurreiritzi sexistari eta egun, oraindik, asko dira Rousseau pedagogia eta demokraziaren aitzat hartzen dutenak.

Hiru hamarkada geroago, 1792an, **Mary Wollstonecraft idazle feministak** «Emakumearen eskubideen bindikazioa» argitaratu zuen, Rousseauk emakumeei buruz dituen edo egiten dituen zenbait onarpenen aurka egin zuen; eraikuntza arbitrario horien helburua gizona munduaren ardatz egituratzaile mantentzea da.

Sinestezina! Begira zein bi gonbidatu ditugun “Gizon jakintsuak emakumeen inguruan hitz egiten, emakumeekin hitz egin gabe” atalean!



Kaixo! Oraingo honetan primerako gonbidatuak ditugu gurekin, Olympe de Gouges eta Jean-Jacques Rousseau!

Mary Wollstonecraften "*Emakumeen eskubideen bindikazioa*" argitaratu berri da eta zalaparta handia sortu da kaleetan. Bi pentsalariak gonbidatu ditugu honetaz hitz egin dezaten. Aurrera ba!



Rousseau: Kaixo, Mary! Zer moduz zaude gaur?

Wollstonecraft: Kaixo Jacques... Ondo nago, eskerrik asko. Pozten nau zurekin hitz egiteko aukera izateak.

Rousseau: Asko entzun dut zure "*Emakumeen eskubideen bindikazioa*" liburuari buruz. Zer da hori?


Wollstonecraft: Beno, kontua da neskek eta mutilek ikasteko eta gauza bikainak egiteko aukera berdinak izan beharko lituzketela. Zuk zer uste duzu?

Rousseau: Hmm, nire ideien arabera neskak eta mutilak desberdinak dira eta rol desberdinak bete behar dituzte. Ez duzu uste horrela denik?

Wollstonecraft: Ulertzen dut esaten duzuna, Rousseau, baina, ez nago hain ziur. Uste dut denok izan beharko genukeela aukera ikasteko eta ahalik eta gehien hazteko.

Rousseau: Baina, Mary, dena oso azkar aldatzen badugu, ez duzu uste nahasi samarra izan daitekeela?

Wollstonecraft: Hmm, ulertzen ditut zure kezak. Baina, zergaitik itxaron? Ez dut nahi emakumeek gizonengan boterea izan dezaten, baizik eta beren buruarengan.





ARO GARAIKIDEA





Ongi etorri **Aro Garaikidera!** XVIII. mendearen amaieratik gaur egunera arte garmatzen garai liluragarri honetara. **Industria iraultzak** funtsezko aldaketak suposatu zituen ekoizpen ekonomiko eta sozialean, teknologian, industrializazioan eta urbanizazioan.

Kapitalismo industrialaren garapenarekin batera lanaren kontzeptua enpleguarekin parekatu zen: jarduera publikoa da; sozialki baliagarria da; eta gizon gehienek bizitzaren ardatz da. Bai, gizon esan dugu. Izan ere, **familia patriarkalaren ideia errotu zen hemen** eta, horrekin, etxea eta amatasuna emakumeen idealarekin lotu zen. Eredua horren arabera, emakumea -emaztea eta ama- etxeko aingerua da; familiaren ardatza eta ohitura onen zaindaria; azken batean, etxeko izaki delikatuak, aitaren edo senarraren babesa behar duena.


Dagoeneko ikusi zenuen historian zehar emakume askok beren lekua aldarrikatu dutela eta zailtasunei aurre egiteko bide berriak eraiki dituztela. Historiaren garai honetan ez ziren gutxiago izango! Iritsi zaigu bada **Mugimendu Feministaren hasiera** kokatzeko momentua (nahiz eta Feminismoaren Lehenengo Olatua Frantziako Iraultzarekin hasi zen)

Hasteko, Feminismoaren Olatuen inguruan gehiago jakiterik nahi? Hurrengo erronkaren bitartez olatu bakoitzaren ezaugarri nasusiak ezagutzeko aukera izango duzu, hartu nahi beste ohar, lagungarriak izango baitzaizkizu!



 1.Olatua	
 2.Olatua	
 3.Olatua	
 4.Olatua	

Feminismoaren Olatuen metafora mugimendu feministen historiako aldiak edo etapak deskribatzeko erabiltzen da. Feminismoaren historiaren bideoa ikusi dezakezu hemen, eta olatu bakoitzeko ideia nagusiak atera.



FEMINISMOAREN LEHEN URRATSAK

Ziur asko hauxe pentsatu duzu: *Nola hasi zen mugimendu feminista? Nortzuk izan ziren sufragistak? Zergatik esan zuen Simone de Beauvoirrek "ez da emakumerik jaiotzen, emakume izatera iristen da"?* Gai horiek guztiak feminismoaren historiaren, emakumearen askapenari buruzko kontakizunaren eta eskubide-berdintasuna lortzeko borrokaren parte dira.

Aro Garaikidean zehar egingo dugun bidaia honetan, hainbat **mugarri feministetan egingo ditugu geldialdiak**, eta bide batez, mendeetan eta mendeetan ukatu zizkiguten eskubideez gozatzeko aukera izan dezagun borrokatu zuten pertsonai historiko zoragarriak ezagutuko ditugu. Has gaitezen!


Zer izango da mugimendu feminista? Aurrez ezagutu ditugun emakume guztiak ez ote ziren feministak? Emakume horiek feministak ziren, noski, baina oraindik mugimendua bere horretan ez zegoen, haien mugimenduaren lehen urratsak eman bazituzten ere. Esan beharra dago, harai honetan aldaketa esanguratsua eman zela: **banakako ekarpenetatik, kausa kolektibo baten aldeko borrokaren kontzientzia piztu zen.**

BAZENEKIEN?

Feminismo hitza lehen aldiz 1871.ean azaldu zen Tuberkulosiaren inguruko tesi batean. Feminismo hitzak Tuberkulosia pairatzen zuten gizon gaixoen ezaugarriari egiten zien erreferentzia zen, alegia, gaixotasuna zuten gizonen itxurak 'infantilizatu' edota 'feminizatu' egiten zituen, hortaz, gizon horiek deskribatzeko erabili zen lehen aldiz.

Geroxeago, Alexandre Dumasek feminismo hitza erabili zuen emakumeen eskubideen aldeko gizonak iraintzeko.

Behin 1882. urtean, Hubertine Aucler sufragista frantsesak, feminismo hitza berreskuratu zuen eta iraina zena harrotasun bihurtu zuen. Izan ere, beren eskubideen alde egiten zuten emakumeen mugimenduei erreferentzia egiteko erabili zuen.

Nolakoa izango ote zen garai horretako emakumeen egoera? Emakume asko tutore baten mende zeuden, ezin zuten negoziarik sortu, bozkatu, kredituak eskatu edo edozein motatako finantza-transakzioa egin beren izenean; ikasketen aitortpen profesionala ukatzen zitzaizkien; seme-alabak adopzioan eman zitzaizkien aita amaren baimena eskatu gabe; gizonen baino ordainsari txikiagoak jasotzen zituzten; ezin ziren kexatu ezkontzaren barruko tratu txarreatatik; ez zuten dibortziorako eskubiderik, eta are gutxiago abortatzeko eskubiderik. 



Orain arte azaldu dizugun bezala, **genero maskulinoa eta femeninoa eraikuntza sinbolikoa dira**. Ideia horren atzean gizona “sexu indartsua” da eta emakumea, aldiz, “sexu ahula”, eta hori **naturalizat hartu zen**. Horren ondorio dira, adibidez, gizona eremu publikoan erabaki politiko sozial eta kulturalen protagonista izatea, eta, emakumea berriz, hazkuntzaren, etxearen eta gizonaren gogobetetze sexualarena. **Garai honetan ezagutuko ditugu bidegabeko egoera horri aurre egingo dieten lehenbiziko emakume antolatuek!**

Feminismoaren Bigarren Olatuan, **emakumeentzako oinarrizko eskubide zibil eta politikoak lortzean oinarritu ziren**, botoa emateko eskubidea azpimarratuz (sufragioa) Gure lehenengo geldialdian **Elisabeth Cady Staton** eta **Lucretia Moth** ezagutuko ditugu, izan ere, emakumeen eskubideen aldeko borrokan aitzindariak izan ziren, Seneca Fallseko Konbentzioaren bultzatzaile nagusiak.



1848an, **Elisabeth Cady Staton** eta **Lucretia Moth** emakumeen eskubideen aldeko konbentzioa ospatzea erabaki zuten (Lehenengo bilera feministatzat hartua izan dena). **300 pertsonak hartu zuten** parte eta Ameriketako Estatu Batuetako Independentzia adierazpenean oinarrituta, **“Seneca Falls-eko Sentimenduen Adierazpena”** sortu zuten, honetan **hurrengoko hamarkadetako aldarrikapen feministen oinarriak zehaztu ziren**: Emakume eta gizonen soldata berdina izatea, emakumeak legez beren burua ordezkatzeko aukera, lanpostu publiko baterako hautatuak izateko eskubidea eta bereziki botoa emateko eskubidea.



Seneca Falls-eko adierazpena pizgarria izan zen, **emakumeak masan**, manifestazio edo panfletoen bitartez, **beren eskubideak eremu publikoan defendatzen hasteko**. Baina ez pentsa erraza izan zenik, urteetan zehar umiliatuak eta zapalduak izan baitziren.



Erresuma Batuan antzeko zerbait gertatu zen, hala ere, hemen lehenago nekatu ziren eta ekintzetara pasa ziren. Adi, honakoa oso interesgarria egingo zaizu eta!

Sufragismoa funtsezkoa izan zen emakumeen "sexu ahul", pasional eta menpekoaren irudiarekin apurtzeko. Zenbait metodo harrigarri eta irudimentsu erabili zituzten: gosegrebak, lider politikoen hitzaldietan sabotajeak, katetzeak, eraikin ofizialetako kristalen apurketa edo sute txikiak. Bazenekien gaur egungo horietako askoren asmakuntza emakume horiei zor zaizkiela?

Errealitate hau irudikatzea kostatu zaizu? Lasai, hemen dituzu garaiko hainbat argazki eta ilustrazio:



Protestaldi luzeen ondoren, eta I. Mundu Gerraren amaieratik aurrera, **zenbait herrialdetako emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten**. Hala ere, eskubide honek muga asko zituen. Izan ere, garai honetako feminismoa emakume zuri eta burgesek eraiki zuten. **Zer gertatzen zen gainontzeko emakumeekin?** Beste errealitate batzuetako emakume feministak beren ideiak zabaldu zituzten jasaten zuten errepresio anitza azaleratzeko. Hauen artean **Flora Tristan** eta **Sojourner Truth** aurkitu daitezke.

Flora Tristan emakume langileen egoeraz eta jasaten zuten errepresio bikoitzaz hitz egin zuen. Klasea eta generoagatik ematen ziren diskriminazio anitzen inguruan, alegia:



Jatorriaz Peruarra zen emakume frantsez honek **"Paria baten peleginazioa"** idatzi zuen. Honako hau ustekabeko arrakasta izan zuen testua bihurtu zen. Tristanen esaldi ospetsuenetarikoa honakoa izan liteke: **"Langilea baino zapalduagoa dagoen norbait dago, langilearen emaztea"**

Sojourner Truth emakume beltzek, emakumeak eta beltzak izateagatik, jasaten zuten diskriminazioaz hitz egin zuen lehenengo emakumea izan zen:



Truth esklabotzapean jaio zen, baina bere alabarekin ihes egin zuen 1826an. Semea berreskuratzeko auzitara jo ondoren, gizon zuri baten aurkako epaiketa irabazi zuen lehen emakume beltza izan zen. XIX. mendean **abolizionista eta emakumeen eskubideen defendatzaile gisa nabarmendu zen**. 1851ko Akrongo Konbentzioan, genero eta arraza berdintasunaren alde egin zuenean, **"Ez al naiz emakume bat?"** hitzaldiagatik da ezaguna. Esklabotzaren aurkako borroka ausartak eta emakumeen eskubideen defentsak funtsezko figura bihurtzen dute feminismoaren historian.



BAZENEKIEN?

Erresuma Batuan emakumeek botu eskubidea lortu zutenean (1918. urtean) 30 urtetik gorako emakumeek soilik bozkatu zezaketen.

Estatu Batuen kasu (1920. urtean lortu zuten botatzeko eskubidea) soilik emakume zuriak eman zezaketen euren botoa.


Ziur ezagunak egiten zaizkizula **Clara Campoamor, Victoria Kent** edo **Margarita Nelken-en** izenak. Haiek izan ziren 1931. urtean Espainiako Parlamentuan sartu ziren lehen emakumeak. Gezurra badirudi ere, **garai horretan emakumeek bozkatu ezin bazuten ere, Parlamentuan parte-hartzeko hautatuak izan zitezkeen.**

Clara Campoamorrek Parlamentutik beretik sutsu aldarrikatu zituen honako oinarriko eskubideak; sexuagatiko diskriminaziorik eza; seme-alabekiko berdintasun juridikoa; dibortzioa edo emakumeen botoa. **Emakumeek 1933an bozkatu zuten lehen aldiz estatu mailako hauteskunde orokorretan,** baina bazenekien, aurretik, Euskal Herriko emakumeak izan zutela botoa emateko aukera? Honen inguruko informazioa karta moduan jaso dugu:



Euskal Autonomia Erkidegoko Erreferenduma, 1933ko azaroaren 5koa, emakumeek EAEn bozkatu zuten lehena izan zen. Gainerako espainiako erkidegoek, 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorretan egin zuten.

Emakumeak pixkanaka eskubideak eskuratzen joan ziren arren, **HETEROpartriarkatuak** bereak egiten jarraitu zuen. Bai, HETERO hitza nabarmendu dugu, izan ere, bikoteak gizon batek eta emakume batek osatu behar zuten, bestela ez ziren onartzen eta ezin zituzten izan inolako eskubiderik.


Hau honela, zer urtetan uste duzu ezkondu zela lehenengo bikote homosexuala Estatuan? Minutu batzuk emango dizkizugu erantzuna pentsatzeko! 

Tira ba! Lehen bikote homosexuala 1901ean ezkondu zen, **Marcela eta Elisa** izeneko bi emakume izan ziren. *Baina nola liteke? Galdera hauen guztien erantzunak ondorengo kartan aurkituko dituzu:*



Marcela Gracia Ibeas eta Elisa Sánchez Loriga 1901eko ekainaren 8an ezkondu ziren, **Espainian genero bereko pertsonen arteko ezkontza legeztatu baino mende bat lehenago**. Hau lortzeko, Elisak, Mario Sanchez izeneko gizon baten plantak egin behar izan zituen. Hala ere, laster jakin zen egia, eta bikotea Portugalera erbesteratu zen lehenik, eta Argentinara geroago.

Agian Aro Garaikideko etapa honetan gehiegi luzatzen gabilta, hala ere, hainbeste dira aurkitu daitezkeen gertakari liluragarriak ezin izan ditugula aipatu gabe utzi. Hurrengo orrialdeetan 1807. urtetik, Simone de Beauvoir-eraino eramango gaituzten **gertakarien mapa** aurkituko duzu.



GERTAKARI ESANGURATSUAK

1800

1807

Ching Shih

Bere senarra hil ondoren hego-ekialdeko itsasoetako piratarik boteretsuena bihurtu zen.



1817

Policarpa Salvatierra

Kolonbiar jostun gaztea, klase ertainekoa eta espainiarren aurkako espioia. Atxilotu eta fusilatu egin zuten eta hil baino lehen esaldi hau esan zuen: **"Ikusi, nahiz eta emakume eta gazte izan heriotza bat eta mila ere sufritzeko ausardia daukat. Ez ahaztu adibide hau"**

1842

Ada Lovelace


Matematikari eta zientzilaria, Charles Babaggeren makina analitikoari buruzko artikulu bat itzuli eta anotazio batzuk egin zituen. Makinaren algoritmo kodifikatuak prozesatzeko gaitasuna aurreikusi zuen, gaur egungo ordenagailuen programazioaren oinarritzat hartzen dena, alegia.



1869

John Stuart Mill

Askatasuna gizonentzako ona bada emakumeentzako ere izan beharko lukeela defenditu zuen. Diputatu honek idatzitako tesia feminismo liberalaren obra klasiko bat da. Bere bikotea, Harriet Taylor feminista zen.



1867

Emakumearen Sufragioaren aldeko Elkarte Nazionala (AEB)

1866an alderdi errepublikanoak liberatutako gizon esklabuei eman zien botoa baina emakumeei, ordea, ukatu egin zien. Hurrengo urtean, Emakumearen Botoaren Aldeko Elkarte Nazionala sortu zen. 1920an emakumeen botoa onartu zen AEBetako konstituzioan, baina soilik emakume zuriena.

1851

Harriet Taylor

Bere senarraren izenean (Stuart Mill) saiakera bat publikatu zuen **"Efranchisement of Women"**. Bertan ezkonduetako emakumeen autonomia bermatzeko, lana mantentzearen beharra aldarrikatu zuen.



1887

Zigarrera Espainiarren matxinada

Hainbat matxinada egin zituzten lan-espazioaren mekanizazioaren aurka, beren lana deshumanizatu egiten zuela eta zaintzarako aukerarik gabe gelditzen zirela argudiatuz (askok euren seme-alabak fabriketara eramaten zituzten).



1893

Kate Sheppard

Zelanda Berriak emakumeen bozka legeztatzen du. Aukera hau eman zuen lehen herrialdea bilakatuz. **Kate Shepard** izan zen mugimendu honen buru eta beste herrialdeetako mugimendu sufragistetan eragina izan zuen.



1895

Adolfo Caminha

Brasilen "Bom-Crioulo" publikatzen du. Nobela honek homosexualitatea du ardatz nagusi eta esklabua izandako gizon beltz bat da pertsonai nagusia. Lan honek zalaparta handia sortu zuen garai horretan.



1894

Annie Londonberry

XIX.mendearen amaieran bizikleta oso lagungarri izan zen emakumeei independentzia ematen baitzien. Hiru seme-alaben ama eta emakume migratu Letoniar honek munduari bira eman zion bizikletaz.



1900

1902

Eugenie Schwazwald

Pedagoga moderno honek emakumeentzako Eskola sortu zuen Vienan. Neskek **hezkuntza-berdintasuna** izan zezaten lan egin zuen. Kalitatezko zentro bihurtzeko, artista eta zientzilari ospetsuak izan zituen irakasle.

1903

Emmeline Pankhurst

"Ekintzak, ez hitzak" lemapean sortu zuen erakundea. Erresuma Batuko politikariek bere errebindikazioei entzungor egiteaz nekatur zegoenez urrats bat haratago joatea erabaki zuen: desobediencia zibilari, manifestazioei, blokeoi, eskaparteak puskatzeari eta gose grebei ekin zion. 1918an botoa lortu zuten, baina soilik 30 urtetik gorako emakumeek (gizonak 21 urtetik aurrera). Bozkatzeko adina 1928an parekatu zen.



1908

Edward Carpenter:

Ezaguna izan zen **"Tarteko sexua"** idazteagatik, XX. Mendeko LGBTI+ mugimenduaren testu aintzinarritzat hartu daiteke.

1919

Rosa Luxemburgo

Alemaniako Alderdi Komunista sortu zuen 1919an, I Mundu Gerra eta militarismoari aurre egiteko helburuarekin.



1916

Emma Goldman

Emakumeek euren sexualitatearen modu librean bizitzea zen anarkista errusiar honen ametsa. Agintean zeudenei hau ez zitzaien ondo iruditzen eta **1916. urtean atxilotu zuten antizorgailuen inguruko informazioa banatzeagatik**. Goldman-ek LGBTI+ mugimenduekin aliantzak sortu zituen eta AEBetan homosexualen eskubideen inguruan hitz egin zuen lehenengo emakumea izan zen.

1911

Martxoak 8

New Yorkeko Triangle Shitwais ehungintzan izandako sute baten ondorioz 146 emakume hil ziren, migratutako emakumeak gehienak. Hondamendiak ondorioak izan zituen: **legeak erreformatzen dira, Emakume Prestatzaileen Nazioarteko Sindikatuaren sorrera bultzatzen da eta Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna** izatea eragiten du, besteak beste.



1929

Virginia Woolf

Idazle ingeles honek idatzitako **"Gela Bat Norberarena"** saiakeran galdera honi erantzuna ematen dio: *zergatik daude emakumeek idatzitako hain liburu gutxi?* Woolfen iritziz, jendarteak ez zien eskaintzen emakumei gizonei bezain beste denbora. Pobreagoak ziren, eta zaintzatarra dedikatu behar zuten.



1922

Emakumeen lehenengo olinpiadak

Olinpiadetan parte hartzeko aukerarik ez zuten Women Olympic Games sortu zuten, emakume kirolarientzako nazioarteko lehiaketa.



1926

Lyceum Club Femeninoa

Izaera feminista zuen lehenengo elkartearen sortu zuten Madrilan.

1931

Emakumeen sufragioa Espainian


Clara Campoamor edo Victoria Kent bezalako emakumei esker, 1931ko Konstituzioak printzipio demokratikoak eta eskubideen bermeak ezarri zituen, eta aldaketarik esanguratsuenetako bat emakumeen sufragioa izan zen. 1931ko urriaren lehen egunetan Bigarren Errepublikako gobernuak Espainian emakumei botoa emateko eskubidea ematen zien legea onartu zen.



1930

Lili Elbe

Danimarkako margolaria izan zen, **sexua berresleitzeko kirurgia** egin zuen lehenengo emakumea, alegia.




1939

Hattie Mc Daniel

Oscar bat irabazi zuen lehenengo aktore emakume afroamerikarra izan zen.



Egia esan, eskubide batzuk eskuratuta, mugimendu feminista desmobilizatzen hasten da, baina justu momentu horretan....PAM!  **Simone de Beauvoir agertzen da** honelako esaldi mitikoekin: "Ez da emakumerik jaiotzen, emakume izatera iristen da". Berarekin hitz egitea interesgarria litzateke ezta?



Gurekin dugu Simone de Beauvoir filosofoa! Eskerrik asko zure agenda estuan guretzako lekua egiteagatik. Gaurkoan salmenta arrakasta handia izan den "Bigarren Sexua" (1949) liburuaren inguruan hitz egin nahiko genuke.

Merci beaucoup!
Plazer bat zuekin tarte hau partekatzea.



Zeintzuk dira honetan jorratzen dituzun ideia nagusiak? Zer eragin izan dute feminismoan?

Emakumearen identitatea sozialki eta kulturalki eraikitzen dela argi dut. Ideia hau garatzeko ahaleginak egin ditut nire liburuan. Sexua eta generoa kontu desberdinak dira, batak biologiarri egiten dio erreferentzia, besteak, ordea, sozialki eraikitzen denari. Alegia, emakumeak ez gara izaki sentiberagoak edo zaintzarako trebetasun berezi batekin jaiotzen. Hau guztia ikaskia da!

Uste dut azaltzen ditudan ideia hauek oso iraultzaileak izan daitezkeela eta feminismoaren ulkereratan eragina izan dezaketela. Baina hau guztia zuek argitu dezakezue, zuek baitzarete etorkizunetik etorri zaretenak eta! Kar, kar, kar.

Bide batez... Zelan daude gauzak 2023. urtean?



Nahi duzu bitxikeria bat kontatzea? Oso modan jarri dira "Baby Shower-ak". Haur berriaren etorrera ospatzeko egiten diren festak. Hauetan hauraren generoa aurkezten da, sinbologia eta koloreak erabiliz hauek zakila edo alua baldin badute. Zer deritzozu?

Dударik gabe, zure ideiak feminismo garaikidearen oinarri dira!



oh mon Dieu!

Hau bai ez nuela espero!!



Hobe Simone de Beauvoir atseden pixka bat hartzen uztea. Jarrai dezagun gure kabuz!

BAZENEKIEN?

Bigarren sexua liburuaren 22.000 kopia saldu ziren kaleratua izan zen lehen astean!





Emakumeek herrialde askotan boto-eskubidea eta bestelako eskubide-zibilak lortu zituzten, hala ere, hau ez zen nahiko izan berdintasuna lortzeko, **bizitzako alderdi askotan gizonak emakumeak menderatzen jarraitzen baitzituzten**. Beauvoir-en arabera, honen guztiaren atzean, ondorengo faktoreak zeuden:



1. **Maskulintzat** hartua dagoena, **femenintzat** hartua dagoena baino **balio** sozial, kultural, politiko eta ekonomiko **handiagoa du**.

2. **Jendartea androzentrikoa da**: Gizonak dira erreferentziako subjektua, eta emakumeak ikusezin bihurtzen dituzte eta baztertzen dira. Gizonak zentroa dira emakumeak, berriz, "bestea".



3. Femeninoa eta maskulinoa **ez dira egitate naturalak, eraikiak baizik**.

Beauvoir-en ustez emakumeak izaki moral, aske eta arduratsuak ziren eta **autonomia ekonomikoaren eta antolaketa kolektiboaren** alde borrokatu behar zuten historia zapaltzailea aldatu ahal izateko! Imaginatuko duzun bezala, honek guzti honek mugimendu feministen berrantolatzea ekarri zuen, eta honekin batera **Feminismoaren Olatu berri baten hasiera piztu zen!**



50-80. HAMARKADE TAKO FEMINISMOAREN MUGARRIAK

Zer gertatuko zen eremu pribatuan? Emakumeen eta gizonen arteko botere harremanak ematen jarraitzen ziren eta horren kontrako kontzientzia soziala areagotzen hasi zen. Testuinguru honetan, feminismoan, bi korronte bereiziziren: bata, **eskubide-berdintasuna bilatzen zuen**, bestea, ordea, **ezarritako sistema osoa aldatzea**. Egon lasai, gutxinaka azalduko dizugu hau guztia!

Hona hemen **Betty Friedan!** "Feminitatearen Mistika"-ren idazlea. Kazetari eta aktibista honek 1963. urtean idatzitako liburuaren bitartez ikusgarritasuna eman nahi izan zion **"izenik ez zuen gaitzari"**. Bertan 1945etik 1950era bitarte, II. Mundu Gerra ostean eman zen fenomeno soziala aztertu zuen. Estatu Batuetako gizonak gerrara joan behar izan ziren, honen ondorioz, emakumeen eskulana beharrezkoa bilakatu zen industria edo nekazaritza testuinguruan, besteak beste.



BAZENEKIEN?

We Can Do It! II. Mundu Gerrako AEBetako propaganda kartel bat da. Helburua nagusia, emakumeak lan-merkatura animatzea zen, hutsik geratzen ziren gizonak egindako lanpostuak betetzeko eta, horrela, nazioari laguntzeko. Antzeko bestelako propagandak ere osatu ziren.



Hala ere, II. Mundu Gerra bukatuta, gizonak bueltatu, eta emakume asko etxeko testuingurura itzuli behar izan ziren. **Hauek konbentzitzeko eta ideia hori indartzeko asmoz, feminitatearen ezaugarri tradizional batzuk nabarmentzea erabaki zen.** Hemen garaiko iragarki batzuk:



Gerratearen ostean **hainbat inkesta osatu** ziren, hauen bitartez agerian geratu zen, emakumeen artean ugarik, euren lanpostuak mantendu nahi zituztela. Ustezko **“bizitza perfektua”** zeramaten emakume heterosexual askok (alegia, etxeko eremura bueltatu, zaintza lanak bereganatu eta senarren agindupean zeudenak) antsietate arazoak eta bestelako gaixotasun mentalak garatu zituzten. Friedanek, hauek guztiak **“izenik ez zuten gaitzak”** bezala izendatu zituen.



Friedanen lana oso garrantzistua izan zen, izan ere, **bizipen pertsonalek irakurketa sozial edo politikoak izan zitzaketela ulertzeko baliagarria izan zen.** Hala ere, kritika asko jaso zituen, ez baitzituen arraza edo klasea bezalako faktoreak kontuan hartu. Izan ere, emakume afroamerikar edo txiro askok enplegua mantendu behar izan zuten (nahi edo ez) beren etxetako ekonomian kolaboratuz.

1966an, Betty Friedanek, beste emakume batzuekin batera, **feminismo liberalari** hasiera emango zion **NOW (National Organization for Women) erakunde feminista sortu zuen.** Hauen arabera, eskubide-berdintasuna lortzeko gakoa, emakumeek, eremu ekonomiko edo politikoan botere-karguak betetzea zen.

BAZENEKIEN?

Elena Francis-en kontsultategia (1947-1984) ezaguna egiten zaizu? Irratsaioak 30 minutuko iraupena zuen, eta entzuleek arazo sentimentaletan "espezialista" zen Elena Francis izeneko bati zuzentzen zioten korrespondentziaren inguruan egituratzen zen. Gehienbat emakumez osatutako publikoaren zalantzei erantzuten zien.

Jaso zuen kontsultetako bat honako hau izan zen: *"Ezkondutako ondoren, zaplazteko bat eman zidan nire senarrak. Bi urte eta erdiko nire neskatari ukabildak eman zizkion sabelean, eta baita nire amari ere, neskatia defendatzeko besoetan hartu zuenean ukabildak bat jaso eta sudurretik odola bota zuen."*

Elenaren erantzuna hau izan zen: *"Ororen gainetik nahi dut oroit zaitezten bizitza honetan gaudela sufritzeko, eta bakoitzak bere gurutzea daramala. Ezkontza oso gauza serioa da, batasun-lokarri handia, zure kasuan aholkatzen dizudana, zure senarrarekin atsegina izatea eta inoiz kontrakorik ez ematea da."*

Handik urte batzuetara jakin zen Elena Francis ez zela inoiz existitu. Emakume horien kontsultak, gidolari talde batek erantzuten zituen. Horren bidez, erregimen frankistak, Espainiako emakumeak "sentimentalki hezten" saiatu zen, Elizaren eta botere publikoen onspenarekin.

Emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak, eta emakumeek **botere-espazioak okupatzeko borroka, ez ziren AEBetara bakarrik mugatu**. Horren adibide argia da karta honen bidez azaltzen dizuguna:



Doria Shafik filosofo eta aktibista egiptoarra **1.500 emakumerekin sartu zen parlamentuan** botoa emateko eskubidea eta soldata berdintasuna aldarrikatzeko.

Aurrez, feminismoan bi adar bereizten hasi zirela aipatu dizugu. Horietako batean zehar bidaiatu dugu, baina zein ote bestea? Jarri segurtasun-uhala eta has dadila gure bidaia **feminismo erradikalean** zehar!

Kate Millett feminista, idazle eta artista estatubatuarra izan zen, batez ere **1970**ean argitaratutako **"Politika Sexuala"** ("Sexual Politics") lanagatik ezaguna. Lan hontan familiaren, hezkuntzaren, erlijioaren eta beste erakunde batzuen botere-egitura tradizionalak kritikatu zituen, egitura horiek emakumeen zapalkuntzan eragiten zutela argudiatuz. Kritikoki aztertu zuen patriarkatua, gizonak buru zituzten jendarte- eta kultura-sistemek, emakumeen askatasuna eta berdintasuna mugatzen zituela ondorioztatuz.



Millett-en arabera, **patriarkatuaren kontra borrokatzeko, sustraiera jo beharra zegoen**, eskubide zibilietaz haratagoko eramuerata; familia; bizitza sexuala edo lan esparruetara besteak beste. **Idea hauek hartu izan dira feminismo erradikalaren oinarri**.

Pertsonala politikoa da!

"Pertsonala politikoa da" har daiteke feminismo erradikalaren aldarrikapenen lema nagusi gisa. Honakoak esperientzia pertsonalaren eta egitura sozial eta politiko handien arteko loturak nabarmendu nahi izan ditu.

Testuinguru honetan, 1960ko hamarkadaren amaieran, **Emakumeen Askapenerako Mugimendua** (WLM, ingelesezko sigletan) sortu zen. Mugimendu hau, mendebaldeko herrialde industrializatueta hedatu zen bereziki, hala ere, mundu osoan eraldaketa handiak eragin zituen, **denbora luzez pribatutzat jo izan ziren arazoak jendaurrera ekarriz**. Mugimendu honen bitartez espazio propio ugari sortu ziren; Tratu txarrak jazandako emakumeei zuzendutako zentroak, hartzaindegiak, ginekologia-zentroak, defentsa pertsonala lantzeko guneak edo familia-plangintzako zentroak besteak beste.

Pertsolana ere politikoa dela sinisteko froga gehiago behar badaituzu, hona hemen gertuko gertakari bat, Basauriko 11ena alegia:



Basauriko 11ak El Kalero auzoko bizilagunak ziren. Herriko jaietan, 1976ko urriaren 8an, **emakume bat atxilotu zuten abortuak egitea egotzita** eta abortatxera lagundu zien emakumeen izenak ematea eskatu zioten. Hurrengo egunean **emakume hauek guzti hauek atxilotu zituzten**. Egun batzuk eman zituzten ziegan, eta baldintzapeko askatasunean atera ziren, epaiketa baten zain. Handik hamabi urteko kartzela-zigorra ere jaso zezaketen, prozesua 1985. urte arte iraun zuen. **Prozesu hori demokraziaren abortuaren lehen legearen aitzindaritzat eta bultzatzailetzat jotzen da**. Lege horrek, 1985ean, Espainian abortua despenalizatu zuen, partzialki bada ere.

Laburbilduz, feminismo liberalak, emakumeak legezko berdintasunaren bidez emantzipatzearen alde borrokatze zuen bitartean, feminismo erradikala iraultzaileagoa zen eta emakumeek jasandako zapalkuntzekin amaitzeko jendarte maila guztietan aldaketa ezinbestekoa zela defendatzen zuen. Hurrengoko gertaera txundigarriak ezagutu baino lehen, erronka txikia porposatzen dizugu, landutakoaren ideia nagusiak kokatzen lagunduko zaitu eta!



Jakingo al zenuke **feminismo liberalaren** eta **feminismo erradikalaren** ezaugarriak ezberdintzen?

	FEMINISMO ERRADIKALA	FEMINISMO LIBERALA
1. Emakumeen eta gizonen arteko legezko berdintasuna bilatzen du.		
2. Sistema patriarkala suntsitu nahi du, jendartean dagoen arazoa sustraitik konpontzeko.		
3. Ez du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bilatzen, ekitatea baizik. Alegia, bakoitzak dauzkan beharretara egokitzea.		
4. Politikoki emakumeen posizionamenduarekin arduratuta dago gehienbat. Espazio publikoetan emakumeen parte hartzea egoteari eta legean gizon eta emakumeak berdinak izateari ematen dio garrantzia.		
5. Gizonak ere sistemaren biktima direla uste da.		
6. Legearen aurrean berdintasun formala lortu bada ere, emakumeek eguneroko bizitzan pairatzen dituzten indarkeria mota desberdinek euren zapalkuntzaren adibide argia direla aldarrikatzen dute eta horren kontra borrokatzen dute.		

Erronkaren erantzunak: Feminismo erradikala (2,3,6) Feminismo liberala (1,4,5)

Ados! Ulertzen dut, generoa baldintzatzailea dela argi dut, baina zer gertatzen da **arrazaz, sexu orientazio, genero identitate edo klasea bezalakoekin?** Bagoazzzzz!

Ziur gaude **Angela Davis**, filosofo, politikari eta aktibista ezaguna egingo zaizula. Berarakin hizketaldia izatea zoragarria litzateke ezta?



Ongi etorri! Oraingoan Angela Davis dugu gurekin! Davis, arrazakeriaren kontrako aktibista eta giza eskubideen defendatzaile handietako bat da. **"Emakumea, Arraza eta Klasea"** liburua (1981) idatzi berri duzu. Zer da liburu honen bitartez adierazi nahi izan duzuna?

Kaixo!
Nire liburuan gai ezberdinak jorratzen ditut, baina funtzean emakume beltzek AEB jasaten dituzten diskriminazioak jorratzen ditut.



Kontagiguzu, zeintzuk dira liburuak idatzi, eta aktibismoan jardutera eraman zaituzten arazo nagusiak?

Ohartu nintzen, pertsona beltzen askapenerako mugimenduek ez zituztela emakumeen eskubideen aldeko borroka kontuan hartzen. Era berean, mugimendu feministek klase ertaineko emakume zurien nortasunetik hitz egiten zuten, ondorioz, ez zituzten emakume txiro edo beltzek jasaten zituzten diskriminazioak beren borrokatuan barneratzen.

Generoa, arraza eta klasea elkarlotuak daude diskriminazioez hitz egiten dugunean. Nire ideiak, zapalkuntza mota ezberdinek nola elkareragiten duten aztertu eta aldarrikatzean oinarritzen dira.

Zein garrantzitsuak izan diren zure ekarpen guztiak! mila esker, Angela Davis!!



Oraindin ere, Davis, tinko dihardu **giza eskubideen aldeko borrokan**. Hona hemen bere esaldi mitikoenetako batzuk:

Feminismoa emakumeak pertsonak garela defendatzen duen ideia erradikala da.

Jendarte arrazista batean arrazista ez izatea ez da nahikoa. Arrazismoaren aurkakoak izan behar dugu.

Zergatik ikasten dugu terrorismoaren beldur izaten, baina ez arrazakeria, sexismoa, matxismoa edo homofobiari?

BAZENEKIEN?

Angela Davis, Pantera Beltzak mugimendu politikoaren kide izan zen, pertsona beltzen edo indigenen goratze sozial, politiko eta ekonomikoa bilatzen zuen mugimendua alegia. Hontako kide ziren 10 pertsonetatik 6 emakumeak zirela ondorioztatu da.

Denboran atzera egingo dugu, **hainbat erresistentzia istorio** kontatu nahiko genizkizuke eta. Ziur inspiratzaileak egingo zaizkizula!

1995era goaz, berriro ere Estatu Batuetara. Garai hontan arraza-segregazioa hain zen handia, non autobusak lerro batekin seinalatuak zeuden: Pertsona zuriak aurrean esertzen ziren, pertsona beltzak ordea, atzekaldean eseri behar ziren. Hain zen zentzugabea, non pertsona beltzak autobusera aurreko atetik igotzen ziren, gidariari txartela ordaintzen zioten, eta berriro jaisten ziren, atzeko atetik igo eta larru-koloreagatik zegokien eserlekuan esertzen ziren. Hau guztia, egun batean, **Rosa Parks** izeneko emakume baten ekintzak dena aldatzea eragin zuen arte. **Gutxi dira hainbeste oihartzun izan duten "ezezkoak"**.



Rosa Parks, **eskubide zibilen mugimenduaren ama** bezala ezaguna da. Estatu Batuetan, Montgomeryn autobusen boikota eragin zuen 1955ean, bere eserlekua gizon zuri bati lagatzeari uko egitean, **arraza-segregazioaren legeak desafiaturik**. Bere borroka, batez ere, eskubide zibiletan oinarritu bazen ere, bere ekintza ausartak zeharka emakume afroamerikarren zapalkuntzari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa sortzen lagundu zuen.

Orain 1969. urteko ekainaren 28ra egingo dugu salto, New Yorkeko **Stonewall Inn** izeneko taberna batera, LGBT pertsonak errebelatu eta milioika bizitza aldatu zituzten gau historiko batera, -eta ekainak 28 LGBT Pertsonen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna izateren arrazoa-.

New Yorkeko Stonewall Inn tabernan, poliziak LGBT komunitateko hainbat kideren aurka egindako sarekadek, erresistentzia ekintza eta manifestazio ugari ekarri zituzten. Erantzun espontaneo honek, LGBT pertsonak etengabe jasaten zuten jazarpena salatzea bilatzen zuen. **Stonewall-eko altxamendua** bezala ezagutua izan dena, mugarri izan zen mundu osoko LGBT mugimenduetan. **Sylvia Rivera** edo **Marsha P. Johnson** estu lotuak daude altxamenduarekin. Ondorengo kartan hauen inguruko informazio gehiago errazten dizugu:



Marsha P. Johnson **trans ekintzaile afroamerikarra eta LGBT eskubideen defendatzailea izan zen**. Ezaguna da 1969an Stonewalleko istiluetan izan zuen paper erabakigarriagatik, LGBT komunitatearen eskubideen aldeko mugimendu modernoaren hasieratzat hartzen direnak. **Street Transvestite Action Revolutionaries (STAR) sortu zuen Sylvia Riverarekin** 1970eko hamarkadan, trans pertsonen eta etxerik gabekoei babesa eskaini zien erakundea. Bere ondareak erresistentziaren eta berdintasunaren aldeko borrokaren ikono gisa irauten du.

Badakizu apirilaren 26a **Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko Eguna dela?** Helburu nagusiak; kolektiboa ikusgarri bilakatzea; erreferente lesbianen falta ikusaraztea; espazio publikoan lekua izatea edo eskubide berdintasunaren alde borrokatzea dira. Hurrengo kartaren bitartez, helburu horrekin sortutako lehen erakundeetako baten berri eman nahi dizugu:



The Daughters of Bilitis, **lesbianen eskubide zibilen borrokaren aldeko lehen erakunda bezala ezaguna da**. Estatu Batuetan sortu zen eta osatzen zituzten ekimenen artean komunitate eta sareak sortzea bilatzen zuen **"Eskailera"** izenako aldizkaria aurkitu daiteke.

GERTAKARI ESANGURATSUAK

Askoz gehiago kontatzea gustatuko litzaziguke baina bidaia luzea egiten ari da. Horregatik, hurrengo punturaino eramango gaituen mapa txiki bat utziko dizugu!

1952

Rosalind Franklin

DNA-ren lehen irudia lortu zuen. Horri esker DNA-ren egitura ezagutu zen.



1953

Anfred Kinsey

Emakumeen sexualitateari buruzko ikerketa ospetsua argitaratu zuen, orgasmo **femeninoa, homosexualitatea edo bisexualitatea bezalako gaiet buruz** lehen aldiz eztabaidatzeko balio izan zuena.

1953

Jacqueline Cochran

hegazkinez **Soinu-hesia** hautsi zuen lehen emakumea izan zen.



1956

Petroriako manifestazioa

Sudafrikako Pretorian 20.000 emakumeek **aparheid politika arrazistaren kontrako manifestazioan** parte hartu zuten.



1953

Mercedes Fornica

Urte bereko azaroaren 7an, abokatu cadiztar honek Antonia Pernia Obradorren erailketa matxista kontatzen duen artikulu polemikoa argitaratu zuen ABCn.



1960

1960

Mirabal ahizpak


Mirabal ahizpak **Trujilloren erregimen diktatorialaren kontra azaltzeagatik** erail zituzten. Mirabal ahizpen erailketa honen ondorioz NBE-ak **azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eguna bezala ezarri** zuen.



1962

Pilula antikonzeptiboa Espainian


Emakumeen **ugalketa eskubideen aldeko borrokaren** ondorioz pildora antikonzeptiboa legeztatzen Espainiar Estatuan.



1965

Zainab Al-Ghazali

Emakume Musulmanen Elkartearen sortzailea eta aktibista egiptoarra. **Emakumeentzako interpretazio parekideago bat** zuen **Korana** proposatu zuen eta horregatik kartzeleratu egin zuten.



1966

Roberta Gibb

Bostongo maratonia parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen. Orduarte lasterketa horretan soilik gizonak harrezaketan parte.

1968

Miss Amerika lehiaketan manifestazioa

New York Radical Women taldeak **Miss Amerika lehiaketan** manifestazioa egin eta boikoteatzen dute.



1970

1970

Carol Hanisch

"Pertsonala politikoa da" argitaratzen du eta emakumeen jarduera pribatuak hala nola, zaintza, hazkuntza, ordaindu gabeko lana, sexuaren araberako lan banaketa... arlo pribatutik atera eta eremu politikoan tokia izan behar zuten gaiak zirela aldarrikatu zuten.



1970

Lesbianismo politikoa

Lavender Menace (Mehatxu morea euskaraz) taldeak New Yorkeko Emakumeen berdintasunerako II Kongresuan **lesbianen aldarrikapenak mugimendu feministetan kontutan hartzen ez zirela aldarrikatu nahi izan zuten**. Horrela feminismo lesbikoari hasiera ematen zaio **Minique Mitting, Adrienne Riche do Audre Lorde** bezalako figurekin. Jendarte matxistak heterosexualitatea inposatzen duela eta modu honetan emakumeek euren sexualitatea modu librean disfrutatzea eragozten ziela planteatu zuten.



1975

Emakumearen Nazioarteko eguna

Nazio Batuen Erakundeak **martxoak 8** Emakumeen Nazioarteko Eguna bezala ezarri zuten.



1977

"Mayo plazako amak"

Emakume talde honek Argentinako Videlaren diktaduran **desagerrarazi zituzten ehundaka pertsonen** kasuetan justizia egiteko protesta desberdinak egiten hasi ziren (gaur egun arte)

¿Dónde están los 30.000 desaparecidos?

MADRES DE LA PLAZA DE MAYO



1978

Ortzadar bandera

Harvey Milk eragin handiko aktibista eta politikoa zen. AEBetako kargu publiko baterako hautatua izan zen lehen gizon homosexuala. **Gilbert Baker** diseinatzaileari LGBT harrotasuna sinbolizatzen zuen zerbait sortzeko eskatu zion, honek ortzadar bandera sortu zuen. Urte horretako LGBT harrotasunerako desfilean erabili zen estreinakoz.



1978

Wangari Maathai

Wangari Maathai Kenian jaiotako **aktibista eta ekofeminista**, agintariei men egiteagatik atxilotu zuten.



1979


Homosexualitatea delitu izateari utzi

Espanian **frankismo garaian homosexualitatea delitua zen**. 1979an homosexualitatea delitu izateari utzi zion.



FEMINISMOAK PLURALEAN

Feminismoaren historia ez da lineala ez progresiboa, atzerapauso eta gora-beherak izan ditu historikoki eman diren gertaera desberdinen ondorioz. Simone De Beauvoir-ek esana utzi zuen bezala: *"Ez ahaztu inoiz krisi politiko, ekonomiko edo erlijioso bat nahikoa izango dela emakumeen eskubideak berriro zalantzan jartzeko. Eskubide horiek ez dira inoiz eskuratutzat eman behar, zuen bizitza osoan erne egon behar duzue"*.



Aro garaikidean **lorpen kolektibo handiko uneak izan dira**, feminismoari laguntza masiboa eman zaizkionaldiak. Hala ere, **feminismoaren aurkako oposizio handikoak** ere egon dira, borrokei garrantzia kendu, eta konkistatutako eskubideak galdu direnaldiak alegia. Ez gara hontan gehiegi luzatuko, hala ere, jakizu, **Susan Faludik Backlash** (1991) izeneko **antifeminismoaren inguruko ikerketa bat** egin zuela. Bertan, (beste gai batzuen artean) antifeminismoaren garapenean hedabideek hedatutako mitoen eragina aztertu zuen. **Gaur egungo influencer matxiruloren baten izenik gogora ekarri ahal dizu guzti honek?**

Tira aurrera jarrai dezagun! Mugimendu feministari eta lortutako mugarriei esker, **emakume anitzen behar eta errealitate ezberdinak agerian geratu ziren**. Hori horrela, XX. mende amaieran **feminismo korrante desberdin ugari** sortu ziren. Ezgutuko hauetako batzuk ondorengo erronkaren bidez!



Urteen poderioz feminismo korrante desberdinak sortzen joan dira jendartearen dauden errealitate aniztasunari erantzuna eman nahian. Ondorenean horietako batzuk topatuko dituzu. Lotu feminismo korrante bakoitza bere definizioarekin:

- 1 Ekofeminismoa
- 2 Transfeminismoa
- 3 Feminismo beltza
- 4 Islamiar feminismoa
- 5 Feminismo postkoloniala

A Feminismoaren subjektua zabaltzen du, zisheteropatriarkatuak zapalduetako beste pertsona batzuk barne hartzeko, ez baitira nahitaez emakume zisgeneroak zertan izan.

B Emakumeek historikoki jasan duten zapalkuntza eta naturaren esplotazio suntsitzailearen artean lotura handia dagoela dio. Eta patriarkatuaren aurkako borrokatzen du, emakumea eta natura kaltetzen dituen sistema baita.

C Emakumeek islamean duten papera aldarrikatzen duen mugimendua da. Musulman guztien berdintasun osoaren alde egiten du, bizitza publikoan, bizitza pribatuan eta justizia sozialaren eremuetan.

D Afrofeminismoa ere deitua, feminismoaren baitako pentsamendu-korrante bat da, sexismoa, klaseen zapalkuntza eta arrazakeria hertsiki lotuta daudela defendatzen duena.


E Feminismoa mendebaldeko kulturetako emakumeen esperientzietan bakarrik oinarritzen zela aldarrikatzeko garatu zen. kolonialismoaren ondorio kulturelek emakume ez-zuriengan duten eraginaren berri ematea bilatzen du.

Momentu honetan ezinbestekoa zaigu **interseksionalitatearen** inguruan hitz egitea. Kontzeptua ezaguna egiten al zaizu? **Kimberlé Williams Crenshaw** emakume afroamerikarra izan zen termino honen sortzailea. Crenshaw-k interseksionalitatearen teoriaren inguruko artikulu bat idatzi zuen 1991ean, bertan klase, genero, arraza, etnia, sexualitatea eta bestelako egituren arteko elkarreaginaren ondorioz jasotako **zapalkuntza eta pribilejio** harreman konplexuez hitz egin zuen.



Patricia Hill Collins soziologo afroamerikarrak, berriz, proposatutako **dominazio-matrizearen** figurak interseksionalitatearen dimentsio honetan sakontzen lagundu zigen.

Hona hemen dominazio-matrize honen eredu bat. Berde kolorez ageri diren ezaugarrietako bakoitza pribilejio egoera bati egiten dio erreferentzia, kontrajarrarian, aldiz, urdinez koloreztatu ditugu diskriminazio egoerak. Eskema honek, zapalkuntza mota desberdinak, hala nola arrazismoa, sexismoa edo homofobia, elkarren artean nola lotzen eta indartzen diren azaltzea bilatzen da.



“Ez naiz emakume askea izango emakume zapalduak dauden bitartean nahiz eta emakume horien kateak eta nireak desberdinak izan.”

Audre Lorde idazle afroamerikarra, feminista, lesbiana eta eskubide zibilen aldeko ekintzailea. Lordek ere interseksionalitatearen inguruan aritu zen aintzindarietako bat izan zen. Idazmenaren bitartez lehenengo pertsona bizitako zapalkuntzak aldarrikatu zituen. Bere ustez, diskriminazio egoera horiek, urdinez daudenak, ez baitira negatiboak.

Ziberfeminismoa

90. hamarkadaren Internetaren hedapenak ireki zion feminismoari bide berri bat. **Donna Haraway-k "Manifiesto Ciborg"** publikatu zuen eta planteatzen zuen ziberespazioa feministek konkistatu beharreko tokia zela zeinetan genero rol tradizionalak transformatu zitezkeen.


Espainiar estatuan 1997. urtean "Mujeres en Red" online egunkari feminista sortu zen. Bertan, zenbait feminismoren difusioa lortu zen eta emakumeen sare solidarioak eraiki ziren.



Berditasunean oinarritutako espazio birtualak sortzeko helburuarekin **Editatona feministak** sortu ziren. Editatona nazioarteko ekimen bat da eta honen bitartez Wikipedian eta Wikimedia proiektuetan dagoen genero-arrakala txikitzea bilatzen da.

Gaur egun emakume *hacker* komunitateek egunero lan egiten dute maskulinizatua dagoen informatika esparruan euren espazioa izateko. Era berean, *gamer*-ak gizonen aldetik jasotzen duten boikota salatzen dute. Esaterako, *Bartzelonako Gaming Ladies* ekitaldia gizon *gamer*ren mehatxu eta akosoaren ondorioz kartzelatu zuten.

Online jokatzeko duten emakume askok jasan sexistak diren komentarioak eta akoso egoerak jasan behar izaten dituzte beraz interneta bezalako espazio zabal horretan lan handia dago egiteko.



Judith Butler

Butler generoan espezializatutako filosofoa da. Berak azaldu zuen nola eraikitzen diren identitatea eta subjektibotasuna eta eraikuntza horretan zer eragin duten sozialki errotuak dauden zenbait diskurtsok. Butler da **feminismo queer** egilerik garrantzitsuenenak. Berarentzat **genero-identitatea ez da zerbait finkoa edo zurruna**, baizik eta etengabe eraikitzen ari dena.




Genero transgresioak eta Feminismoarengatik ahaztutakoak

Pertsona trans deitzen zaie jaiotzez egokitu zaien generoarekin identifikatzen ez diren pertsonari (identifikatzen direnei, berriz, pertsona zis)

Orain arte ikusi dugun jendarte matxistak kolektibo honekiko oso jarrera desagokoa du eta, zoritxarrez, zenbait indarkeri sozialaren eta instituzionalaren erantzule da. Adibidez, duela oso gutxi arte (eta hainbat tokitan oraindik) "Genero identitate nahasmendu" bezala identifikatzen da, eta gaixotasun mentala identifikatu izan da ere.

Feminismoaren subjektu politikoa emakumea izan denez historikoki, askotan emakume hitza bera mugatua izan da eta pertsona trans asko kanpo sentitu dira maiz. Arestian aipatu dugun *feminismo interseksionalak* begirada zabalagoa eskaini digu eta emakume transek zapalkuntza bikoitza pairatzen dutela azaltzeko balio izan du: emakume izateagatik eta trans izateagatik zapalkuntza bikoitza bizi dezake.

Pertsona transek euren askapenerako eta aldi berean **instituzionalak** emakume guztien askapenerako borrokatzeko **transfeminismo** deituriko mugimendua sortu da azken urteetan. Transfeminismoak defendatzen du **feminismoaren subjektuak ez direla soilik emakume zisgeneroak, jaio diren generoarekin identifikatzen direnak, baizik eta trans pertsonak eta zisheteropatriarkatuak zapaldutako gainontzeko guztiak ere.**



Azken urteetan zer?

Ikusiko zenuenez, urte hauetan guztietan ere emakumeen borrokari esker hainbat eskubide lortu dira. Baina dena lortu al da? Feminismoaren **laugarren olatuan** gauden honetan, mugimendua mundu osora zabaldu da eta mundu osoko emakumeek bat egiteko aukera izan dute. Zenbait herrialdetan izaten diren borrokak ezagutu eta haiekin bat egiteko aukera dugu gaur egun Internetari esker.

Espainiar Estatuan azken urteetan **emakumeentzako aurrerapauso esanguratsuak eman diren arren, berdintasunaren alde borrokatzen jarraitzea** ezinbestekoa izan da, jendarteko zenbait alderdietan desberdintasun egoerak ematen baitirelako. Emakumeek jasaten duten indarkeria esate baterako jatorri estrukturala duen arazo bat da, jendartean errotuak dauden arau sozial, kultural eta sistemikoek bermatzen dutena. 1978.urteko Espainiako Konstituzioak emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen badu ere, berdintasun erreal eta efektiboa lortzeaz urrun gaude oraindik.

Euskal Herrian ere feminismoak bultzada handia izan du bereziki 2018ko greba feministaren ondoren, horren adibide dira besteak beste, **gaiarekiko kontzientzia soziala, mugimendu feministen parte hartzearen gorakada eta berdintasuna lortzeko sortu diren hainbat lege.**



Lelo feminista hauek osatu, eta lelo horien atzean dagoen aldarrikapenaren inguruan eztabaidatu.

- 1 Bai
- 2 Lan eta
- 3 Zaintza
- 4 Kaleak, egunak
- 5 Gure gorputzak

- A Erdigunea!
- B Bakarrik da bai!
- C Pentsio duinen alde!
- D gureak dira!
- E eta gauak gureak dira!

1980

GERTAKARI ESANGURATSUAK

1983

Emakumeen
Institutuaren sorrera

Emakumearen institutua emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko eta emakumeek bizitza politikoan, kulturean, ekonomikoan eta sozialean parte hartzea ahalbidetzen duten baldintzak sustatzeko sortu zen.

Instituto de las
Mujeres

2005

Sexu bereko
pertsonek
ezkontzak

Urte honetan sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak, adoptatzeko aukera, herentzia eta pentsio jasotzeko aukera legeztatzen da Espainiar Estatuan.



2007

Berdintasun legea

Lege honek emakume eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea. Emakumeek jasaten duten diskriminazioarekin amaitzea bilatzen du lege honek, besteak beste. Gainera lege honi esker pertsona transei NAN-ean operatu gabe haien izena aldatzeko aukera ematen die.



1988

Emakunde

Eusko Jaurlaritzaren organo hau 1988an sortu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen den erakunde publikoa da.



2004

Genero indarkeriaren
kontrako babes
integrala


1/2004 Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Lege Organikoa 2005.urtean jarri zen indarrean. Aurrerapauso garrantzitsua izan zen genero indarkeriari aurre egiteko eta emakume zein seme-alabei babes neurri desberdinak eskaintzeko.



2010

Sexu- eta ugalketa-
osasunari eta
haurdunaldia
borondatez eteteari
buruzko legea

Zigor Kodearen erreforma aurrerapausoa izan zen emakumeentzat legeko abortu segurua egiteko aukera eman baitzuen. Honek emakumeen eskubide sexual eta ugalketa askatasunerako ezinbesteko legea izan zen. Legeak 2010etik aldaketak izan ditu, azkenak 2023an eman dira.



1994

Bikote
homosexualentzako
aurrerapauso
legalak

Gasteizen bikoteen erregistro bat sortzen da, kontratu zibil baten bidez euren bikote harreman afektiboa ziurtatzeko.



2000

Holanda sexu
bereko bikoteen
ezkontzak legeztatu

Holanda izan zen munduko lehen herrialdea sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak legeztatzen.



2012

Mala Yousafzai

Malala Yousafzai nesken hezkuntzaren aldeko borrokaren nazioarteko sinbolo bihurtu zen 2012an talibanek Pakistango Swat bailaran emakumearen hezkuntzari jarritako murrizketen aurka tiro egin ondoren.





2017

#METOO-A SARE SOZIALEN BITARTEZ GARATU ZEN SALAKETA PUBLIKOARI DAGOKIO. EMAKUME EZBERDINEK HAINBAT EREMUTAN JASANDAKO SEXU-JAZARPEN ETA BOTERE-ABUSU KASUAK PARTEKATU ZITUZTEN.

#MeToo-a 2017an sare sozialen bitartez garatu zen salaketa publikoari dagokio. Zenbait emakumek hainbat eremutan jasandako sexu-jazarpen eta botere-abusu kasuak partekatu zituzten. Harvey Weinstein-en kasu nabarmendu zen gehien bat. Eragin nabarmena izan zuen feminismoan, eztabaida globala sortu baitzuen bortxaketaren kulturari eta genero-berdintasunari buruz. Kanpainak jazarpenaren testuinguruan aldaketak nabariak ekarri ditu industrian.



2018

MARTXOAREN 8KO MANIFESTAZIO JENDETSUENA ESPAINIAN GREBA FEMINISTA IZAN ZEN, HERRIALDE OSOAN MILIOIKA EMAKUMEK PARTE HARTU BAITZUTEN PROTESTETAN ETA LAN-UZTEETAN "GU GELDITZEN BAGARA, MUNDUA GELDITZEN DA" GOIBURUPEAN.

Martxoaren 8ko manifestazio jendetsuena Espainian 2018ko greba feminista izan zen, herrialde osoan milioika emakumek parte hartu baitzuten protestetan eta lan-uzteetan "Gu gelditzen bagara, mundua gelditzen da" goiburupean. Lelo honek adierazten zuen emakumeek beren eguneroko jarduera guztiak etengo balituzte (enplegua, etxeko lana, zaintza-lana edo kontsumoa, besteak beste), sistemak funtzionatzeari utziko ziola.



2005

ANA ORANTES GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN ZEN, TELEBISTAN EMANDAKO TESTIGANTZAK ARAZOAREN KONTZIENTZIA PIZTEN LAGUNDU ZUEN. HANDIK GUTXIRA ANA ORANTES HIL ZUEN BERE SENARRAK, INDARKERIA MATXISTARI HELTZKO PREMIA AGERIAN UTZIZ. HORRI ERANTZUNEZ, GENERO INDARKERIAREN AURKAKO BABES OSORAKO NEURRIEI BURUZKO LEGE ORGANIKOA SARTU ZEN INDARREAN. LEGEA INDARREAN SARTU ZEN URTEAREN ARABERA.

Ana Orantes genero-indarkeriaren biktima izan zen eta 1997an telebistan emandako testigantzak arazoaren kontzientzia pizten lagundu zuen. Handik gutxira Ana Orantes hil zuen bere senarrak, indarkeria matxistari heltzeko premia agerian utziz. Horri erantzunez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Lege Organikoa sartu zen indarrean 2005. urtean, genero-indarkeria prebenitzeko, esku-hartzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko legezko neurriak ezarriz.



"NIK SINISTEN DIZUT" MUGIMENDUAK, MANIFESTAZIO ETA ELKARTARATZE JENDETSUAK EKARRI ZITUEN. "MANADAREN" TALDE-BORTXAKETA ETA JASOTAKO ERANTZUN JURIDIKOA IZAN ZEN ERAGILE NAGUSIA. MUGIMENDU HONEK ELKARTASUNA ETA SEXU-INDARKERIA BIKTIMAK SINISTU ETA LAGUNTZEAREN GARRANTZIA NABARMENDU ZITUEN. ERA BEREAN, BORTXAKETAAREN KULTURARI BURUZKO KONTZIENTZIA AREAGOTZEN LAGUNDU ZUEN, EZTABAIDAK SORTUZ ETA BIKTIMEKIKO ERANTZUN INSTITUZIONAL ETA SOZIALA ALDATZECO PRESIOA EGINEZ. BAI BAKARRIK DA BAIETZ LEGEA BESTEAK BESTE.

"Nik sinisten dizut" mugimenduak, manifestazio eta elkartaratze jendetsuak ekarri zituen, "Manadaren" talde-bortxaketa eta jasotako erantzun juridikoa izan zen eragile nagusia. Mugimendu honek elkartasuna eta sexu-indarkeria biktimak sinistu eta laguntzearen garrantzia nabarmendu zituen. Era berean, bortxaketaren kulturari buruzko kontzientzia areagotzen lagundu zuen, eztabaidak sortuz eta biktimekiko erantzun instituzional eta soziala aldatzeko presioa eginez, 2022. urteko Bai bakarrik da Baietz legea, besteak beste.



TRANS PERTSONEN BERTINTASUN ERREAL ETA ERAGINKORRERAKO ETA LGTBI PERTSONEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESTATU ESPAINIARRERAKO LEGEA INDIRREAN JARTZEN DA.

2023an, trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Estatu Legea sartu zen indarrean. Legeak 16 urtetik aurrera genero-autodeterminazioa ahalbidetu zuen, eta lurralde nazional osoan konbertitzeko terapiak debekatu zituen, besteak beste.



BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK:

- Daura Cristina, M. Segarra Nacho eta Bastarós María. (2018). Herstory: una historia ilustrada de las mujeres. Lumen.
- Duby Georges eta Perrot Michelle. La Antigüedad, Historias de Mujeres. (2018). Taurus.
- Federici Silvia. (2010). Caliban y la Bruja: Mujeres, cuerpos y acumulación originaria. Traf.De Sueños.
- Hesse María. (2022). Malas Mujeres. Lumen.
- Mirabilia Pandora eta Guixe Mar. (2018). ¡Imparables! Feminismoa y LGTB+. Norma Editorial.
- Sánchez Romero Marga. (2022). Prehistorias de Mujeres. Ediciones Destino.
- Stromquist Liv. (2018). El Fruto Prohibido. Reservoir Books.
- Tenenbaum Eugenia. (2022). La Mirada Inquieta: Como disfrutar del arte con tus propios ojos. Temas de Hoy.

PODCASTAK:

- Mujeres con Historia: Mujeres y Religión en la Antigua Roma. (2022).
- Mujeres con Historia: Las Beguinás. (2021).
- Mujeres con Historia: Mujeres en la Prehistoria, paleolítico y sociedades cazadoras/recolectoras. Almudena Hernandori elkarrizketa. (2021).
- Sangre Fucsia. Brujas y brujerías. (2023).
- Sangre Fucsia. Las Mujeres en la Grecia Clásica. (2019).
- Tenía la duda, Judith Tiral. Como era el día a día de los primeros homínidos. Marina Lozanori elkarrizketa. (2023).

HITZALDIK:

- Alamilla Assela. (2022). El rapto en la Mitología Clásica. Seminario de Arqueología Clásica. U.C.Mko Geografía eta Historia Fakultatea.
- Cid López Rosa. (2021). Mujeres en la Antigua Roma. Conferencias de Cauces del Nalón y Uniovi. Oviedo: <https://www.youtube.com/watch?v=x9Yx4xPKMgU&t=11s>.

INSTAGRAM KONTUAK ETA WEB ORRIALDEAK:

- Afrofeminas. (Instagram kontua): <https://www.instagram.com/afrofeminas/?hl=es>
- Arqueo.feminismo. (Instagram kontua): <https://www.instagram.com/arqueo.feminismo/?hl=es>
- BerdinBerri.eus: <https://berdinberri.eus/>
- Mujercitastudio. (Instagram kontua): <https://www.instagram.com/mujercitastudio/?hl=es>
- Memoria de las Brujas: <http://memoriadelasbrujas.net/>

ALDIZKARIAK

- Pikara Magazine. <https://www.pikaramagazine.com/2023/09/141-anos-de-feminismo-el-nacimiento-de-una-palabra/>



LEPRO FEMINISTA DENBORA LERRO FEMINISTA DENBORA LERRO

UNITATE

DIDAKTIKOA